



ttiipi-ttapa

2016ko apirilaren 7a | XXXVI. urtea | 659. zenbakia

erran.eus



Ane PETRIRENA
Espainiako junior txapelketa irabazi du sunbieldarrak → 43


Gehigarri berezia
Udaberri- Udako moda

BERA → 10
Antzezlan baten bidez oroimena lantzeko gonbita

GOIZUETA → 34
Plaza zolaberritzeko proiektua aurrera doa

BAZTAN → 35
Iruritan Eskuaraz Egunak apirilaren 15 eta 16an


URDAZUBI → 38
Kontrabandisten lasterke-tarako izen ematea irekia



Mikel ALKOZ | Leitzako ilustratzaile gaztea

«Ilustrazio batek ideia bat, dokumentazio lana, teknika desberdinak... biltzen ditu bere baitan»


ELKARRIZKETA → 3



ERREPORTAJEA → 4-5

Eskolara joateko egunero hainbat kilometroko bidea egin behar izaten dute herrian eskolarik ez duten haurrek. Aniz, Arano eta Eratsungo hiru gurasorekin bildu da TTIPI-TTAPA.

340 kantuzale bilduko dira Arkupeakek antolatuta apirilaren 21ean Dantxarinearnean eginen den kantu bazkarian.



Berako XII. Mendi lasterketa apirilaren 17an izanen da 525 korrikalarik 21,125 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

berako agenda
.eus

* Apirila *

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus

10

IGANDEA

Haurrentzako ikuskizuna:
Oneka marrazoa (Ene kantak)
17:00 Kultur etxean
Sarrera: 5 €
Antolatzailea: Lobiaga Itxasola



Liburuaren eguneko ospakizuna

17

IGANDEA

Haurrentzako magia ikuskizuna:
Oliver magoa
17:00 Kultur etxean
Sarrera: 5 €



8

ORTZIRALEA

Haurrentzako ikuskizuna:
Kulunkantauri
17:30 Herri Liburutegian
3-9 urte bitartekoentzat



16

LARUNBATA

17:00-19:00
Berako kiroldegian dortsal ematea

17

IGANDEA

8:30 Bera-Larun-Bera eskursioa lasterketa ikusteko. 14 kilometro.
9:00 Bera-Usatitak-Landagana-Bera eskursioa lasterketa ikusteko. 10 kilometro.
8:00-9:00 Berako kiroldegian dortsal ematea.
9:30 Berako Mendi Erdi Maratoiaren irteera
11:10 Irabazlearen ailegatzea guti goiti-beheiti
12:50 Azken sailkatuaren ailegatzea guti goiti-beheiti
13.30 Sari banaketa eta zozketa.



Argibide gehiago: www.manttale.com

22

ORTZIRALEA

Emanaldia
"El viaje de las letras"
17:30 Herri Liburutegian

Ondotik
"Irakurketa istant batean"
Argazki Lehiaketako sari banaketa

TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!

Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen guztirako, etorri gurera.

RENAULT

Passion for life



SERVICIO POSVENTA Renault

Renaultek gomendatzen du

renault.es/posventa

TALLERES SANTESTEBAN, S.A.

Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

Mikel Alkozek (Leitza, 1990) umetatik izan du marratu eta eskulanak egiteko afizioa. Bilbon Arte Ederrak eta Bartzelonan ilustrazioko graduondokoa egin ondotik «han-hemenka lan-

txoak eginez» hasi zen ilustratzaile lanetan. Pintura, akuarela, tinta... eskuetan, bere bidea margotuz joan da eta berriki, Baigorriko ZTK argitaletxetaren eskutik iritsi zaio lehenbiziko

liburua ilustratzeko aukera. *Ilargi nahia* izan da elkarlan horren fruitua: Paxkal Indok idatzitako istorioa, fantasia eta natura uztartzen dituzten irudiekin jantzi du Mikelek.

Mikel ALKOZ ZABALETA | Leitzaiko ilustratzaile gaztea

«Ilustrazioek kontakizuna aberasten dute, testuari ekarpen bat eginez»

Eneritz IRAOLA | LEITZA

Nolatan hasi zinen ilustratzaile lanetan?


Han-hemenka lan tikiak egiten hasi nintzen, kartelen bat zela, logotiporen bat zela, ilustrazioren bat... oleozko kua droak ere egiten nituen, ezagunek eskatuta. Aldi berean ilustrazioko portfolio bat prestatu nuen argitaletxeetara bidaltzeko eta Baigorriko ZTK argitaletxetik Paxkal Indok erantzun zidan. Nire lana gustatu zitzaiola eta lan gehiago ikusi nahi zituela esan zidan, eta Baigorriin elkartu ginen. Hilabete baten buruan, haurrentzako ipuin baten proiektuan parte hartzeko aukera eskaini zidan, Paxkalek berak idatzitako ipuinak ilustratzeko. Eta ilusio handiz eman nion baietza.

Zein izan da emaitza?

Ilargi nahia liburua. Bertan, Nahia izeneko 4 urteko neskatua da protagonista. Mendian bizi da, leiho handiak dituen etxe moderno batean, eta ilargiarekiko duen zirrara azaltzen da ipuinan. Haurren beldurak eta nahiak islatzen dira, haurren bizipenen ikuspegitik kontatua.

Nolakoa izan da ipuin hau egiteko prozesua?

Lehenbizi, testua ulertu eta buruan irudien bidez imajinatu nuen kontakizuna. Pertsonaiek diseinatu eta ilustrazioen estiloz zehaztu ondoren,



UTZITAKO ARGAZKIA

Ilargi nahia da Mikelek ilustratu duen lehenbiziko liburua.

ipuinaren eskema bat arkatzez egin nuen, irudiak orrialdez orrialde marraztuz. Paxkalekin azken aldaketa batzuk adostu, eta dena zehaztutakotan, marrazki definitiboekin hasi nintzen. Margotzeko, akrilikoak, akuarela eta arkatzak erabili nituen.

Ilustrazioak apaingarri edo osagarri dira?

Ilustrazioekin, kontakizuna aberasten saiatu naiz, Nahiaren mundua osatuz, testuan aipatzen ez diren pertsonaia edo elementuak gehituz etab. Helburua ez da testuak esaten duena bakarrik irudikatzea, baizik eta testu horri ekarpen bat egitea. Testua eta ilustrazioaren bi-

OHITURAK

«la beti eskuz egiten dut dena, hala ohitu naiz eta erosoago sentitzen naiz paperean eginez, ordenagailuz baino. Emaiztan ere pintura edo eskulanaren aztarna ikustea gustatzen zait».

GUSTUKO GAIAK

«Fantasia eta natura uztartzen dituen edozein gairekin sentitzen naiz eroso. Nire inguruan dudan naturari begira fantasiatzko irudi asko etortzen zaizkit burura».

dez osatzen baita ipuina, hau da, elkarren osagarri dira.

Ilustrazioei ematen zaie dagokien garrantzia?

Ilustrazioei dagokien garrantzia emanen bultzatze, hortaz bizitzeko aukera gehiago izanen genukeela uste dut. Borkazionala da baina lan asko egin behar da, eta diru aldetik erantzun gutxi du. Batzuetan emaitza ikusten den irudia berehalako batean egin dela pentsa daiteke, baina ilustrazio baten atzean, ideia bat dago, dokumentatu behar, teknikak dominatu, narrazioa edo espresioa lantzen jakin, marrazkia burutu, ikasketak ere hor daude...

Testuak irudiz jantzea edo hutsetik sortzea, zer duzu nahiago?

Hutsetik sortzea beti gustatu izan zait. Marrazten duenak, bakoitzak bere pertsonaia eta bere irudimen mundua izaten baititu. Gainera askatasun osoa duzu. Besteen testuak ilustratzea errezaz bezain zaila izan daiteke, testuaren gaiaren arabera edo kontakizunaren arabera. Testu batzuekin, automatikoki berehala bururatzen zaizkizu irudiak. Gustukoa den gaia baldin bada, ilustrazioak bere gisa ateratzen dira. Baina besteetan, ordea, buruhauste dexente eman ditzake. Batzuetan zaila da irudia bururatzea edo testuaren esanahia harropatzea.

Etorrizunean zer?

Nahiaren ipuinak jarraitzea izanen du. Ipuin bildumatxo bat egiteko asmoa dugu eta orain hasiko gara bigarren alearekin. Nik asmatutako istorioen bat ere ilustratu nahi nuke. Erdizka egindako istoriotxoak badituzte baina oraindik formarik eman gabeak. Ilustratzeko irudiak edo istoriotxoak koaderno batean apuntatzen ditut. Momentuan agian balio ez badute ere, etorkizunean beste proiektu baterako lagungarriak izan baitaitezke. Inspirazio iturri bilaka liteke koaderno hori.



ARGAZKIA: AINHOA MARITORENA

08:55ean hartzen dute autobusa Anizko haurrek, Elizondorat joateko.

GIZARTEA → **ESKOLARIK EZ DUTEN HERRIAK**

Eskolara joateko hainbat kilometroko bidea egin behar...

Ordu erdi inguru pasatzen dute joan-etorrian eskolarik ez duten herrietako ikasleek

Lerroan jarrita, motxilak bizkarrean, autobusaren zain dago ume kuadrila. Ez da ateraldi berezi batean ateratako argazkia, egunero errepikatzen dena baizik. Herrian eskolarik

ez duten haurren errutina. Gurasoen iritzia jaso nahirik, Anizko Ainhoa Maritorenarekin, Eratsungo Nagore Eskuderorekin eta Aranoko Xabier Legarretarekin bildu da TTIPI-TTAPA.

E.IRAOLA

1970-1971. ikasturtean itxi zuten Aranoko eskola, 1974an Anizkoa eta Eratsungoa izan zen ixten azkena, 2011-2012 ikasturtean, gutxieneko bortz ikasleko kopurura iristen ez zirelako. Gerroztik, Goizueta, Elizondo eta Doneztebeko eskoletara joaten dira herriko haur eta gazte-

txoak, egunero autobusean ordu erdi inguruko bidea eginaz.

LAGUNTZAK

Gobernuak izendatzen du zein ikastetxe dagokien herrian eskolarik ez duten ikasleei. Trukean, autobus-zerbitzua dohainik eta jangela zerbitzua merkeago izaten dute bertara doa-

zenek (erdia ordaintzen dute gehienetan). Baina muga ere badu laguntzak «norbaitek erabaki dezake bertze eskola batetara bidaltzea, aukera badu, baina ez luke laguntzarik izanen» azaldu du Ainhoak.

Jangela zerbitzuaren garrantziaz solasten dute hirurek «pentsa, bestela beste 24 kilometro

gehiago lirateke egunero» dio Xabierrek. Hala ere, haurrentzat hasieran behintzat gogorra da Nagoreren ustez «goizean goiz atera eta honat bueltan iristerako 17:00 inguru izaten dira. Heldu baten lanegunaren parekoa da hori eta tikienek ere halaxe egiten dute. Ezin dugu Doneztebera erabat joan-etorrian ibili. Batetik bestera mugitu behar horrek mugatu egiten gaitu».

MENPEKOTASUNA

Eskolaz kanpoko jarduerak ere herritik kanpo egin behar izaten dituzte «menpekotasun handia sortzen dute batez ere garraio eta ordu-tegiari dagokionez, edozein jarduera, bilkura, ekintza... egiten dela, guztiak Elizondon egiten dira, hortaz, kotxearen menpe gaude beti» aitatu du Ainhoak. Nagorek ere lotura hori bade-la dio, beraien kasuan Donezteberekin «derri-gorez atera behar dugu kotxeko karneta. Herri- etortzen dira eta hemen ez dago ezer». Ara-

MUGITU BEHARRA

«Beraien lagunak bata dantzan, bestea kirolen batean... hasi direla esanez etortzen zaizkizu eta ezin diezu aukera hori gabe utzi. Herri tikietan normalki gertatzen dena da eta eskola bertan ez badago are gehiago».

Nagore ESKUDERO

HERRIGINTZA ESKOLAK

«Eskolak gure herriaren ezagutzan izan ditzakeen zailtasunei laguntzeko herrigintza eskolak sortu ziren iaz. Herriko jendeak herriko umei beren inguru eta ezagutzak erakusteko polita izan da eta sortu den materiala eskolara eramaten saiatu gara».

Xabier LEGARRETA

noko haurrek ere Goizuetan egiten dituzte eskolaz kanpoko jarduerak «eta azkenean, gurasook ere ordu asko pasatzen dituzte Goizuetan. Baina neurri handi batean, hori, Aranon azpiegiturarik ez daukagulako da».

ERREFERENTZIAK

«Haurren inguru hurbila aunitz aldatzen da Aniztik Elizondorat, erreferentziak aldatzen dira; adineko jendearekin harremana, frontoian edozeinekin egotea, etxeen izenak, eskuara bera».

Ainhoa MARITORENA

ONDORIOAK

Eskolan egiten diren hainbat erreferentzia eta adibidetan, herri ttiki hauek albo batera gelditzen dira aunitzetan. Hizkeran bertan ere badiu eragina Ainhoaren ustez «gure haurren kasuan eskolarat hasi di-relarik eskuaramaila aunitz okertu da, Anizen erabiltzen ditugun hitzak baztertu dituzte ohartu baitira Elizondon ez dela horrela solastatzen». Zahagi dantzaren adibidea aipatu du Xabierrek, «Aranoko haurrek Goizuetako zahagi dantza oso ttikitatik ikasten dute, aldiz, Goizuetako haur eta gazte askok ez dakite Aranon zahagi dantza egiten denik ere. Hala ere, orain irakasleak kontzienteagoak dira eta gauza horiek lantzen hasi dira, eskolako ikasleen laurdena Aranokoa baita».

ETORKIZUNA

Etorkizunera begira, ez batzuek eta ez berzteek ez dute herrian eskola irekiko denaren esperantzarik. Horregatik herri giroaren mesedetan, Eratsunen «zerbait antolatzeko asmoa» badutela dio Nagorek, «herriko jendea kalera atera eta elkarrekin zerbaitegiteko». Aranon, berriz, lanean dihardute azken urtean «herrigintza eskolak egiten ditugu, herriko jendeak herriko umei beren ingurua eta ezagutzak erakusteko». Bertatik bertara, autobusik hartu gabe.

GURASOekin SOLASEAN



Ainhoa MARITORENA AZKARATE

ANIZ. 2 HAURREN AMA

«Haurrak arras nekatuak etortzen dira, bidean denbora aunitz pasatzen dute»

Eskolarako joan-etorrian 20 kilometroko bidea egin behar izaten dute Ainhoaren bi seme-alabek «Elizondoko Udal Eskolarat joaten dira». Hamabost haur daude herrian «Haur Hezkuntzakoak 8 eta Lehen Hezkuntzakoak 7. Guztiak Elizondorat joaten dira, bi izan ezik, horiek Zigako eskolarat joaten dira». Goizeko 8:55ean hartzen dute autobusa eta bueltan «17:00etan ailegatzten dira herrira, asteazkenetan lehenago joan eta lehenago bueltatzen dira». Ibili eta buelta 40 minutu pasatzen dituzte bidean, «horixe da herrian eskolarik ez izatearen ondorioz makurrena. Haurrak arras nekatuak etortzen dira». Alde ona, berriz, adin desberdinetako haurrek elkarren artean duten lotura da bere ustez «joan eta etorri autobusean elkarrekin egiten dutenez, autobusetik jaitxi eta denok batera frontoira joaten gara, arratsalde guztia elkarrekin pasatzen dugu». Duela 40 urte baino gehiago etsi zuten eskola eta zer den ezagutu ez duen arren iduritzen zaio «herrian berean eskola izateak herriari bizitasuna emanen liokeela, ikasketa prozesua ere desberdina izanen zela, mugimendu gehiago legoke egun guztian». Anizen egoera berezia bizi dute egun «inoiz baino haur gehiago bada, baina egoera hau ez da normala 70 biztanleko herri batean % 25a 11 urtez azpikoa izatea ikaragarria baita. Dena den, egoera hau ez da etorkizuna. Baliteke hemendik urte batzuetara haur gehiago ez sortzea, hortaz, etorkizunean ere eskolarik gabe segiko dugula iduritzen zait».



Nagore ESKUDERO BALEZTENA

ERATSUN. 2 HAURREN AMA

«Herrian eskola dutenek baino aukera gutxiago dituzte gure seme-alabek»

Eratsundik Doneztebera kurbaz beteriko 18 kilometroko bidea egiten dute egunero «Haur eta Lehen Hezkuntzako sei ikasle eta DBHko bi daude herrian». Eratsunen autobusa 08:20an hartu eta bederatzia baino lehenxeago iristen dira Doneztebera». Bueltan berriz, «bi egun 16:00etan ateratzen dira eta beste bi egun 16:30ean. Herrira iristerako 17:00 inguru izaten dira. Heldu baten lanegun baten parekoa da hori». Eskolaz gain, eskolaz kanpoko jarduerak egiteko ere Doneztebera joan eta etorri ibili behar izaten dute «gurasook derri gorrez atera behar dugu kotxeko karneta». Ibiliaren ibiliz, azkenean «bai beraiek eta baita gu ere ohitu gara» dio. Egoerak alde onak ere baditu, «herri ttikia izanik, adin desberdinetako haurrak elkarrekin ibiltzen dira jolasean. Lotura berezi hori sortzen da eta Doneztebera joanda, beste herrietako haurrak ezagutu eta haiekin ere harremana dute». Seme zaharrenak eskolan hasi behar zuen urtean itxi zuten Eratsungo eskola «lau ikasle ziren, legeak ordea dio gutxienez 5 behar direla. Horren aurrean ezin da ezer egin. Saiatu ginen ahal zen bide guztietatik, baina ezin... legearen arabera arrazoi zuten. Momentuan pena handia eman zigun, hurrengo ikasturtean 6 ikasle izango zirela bagenekien gainera, baina egia da urte horretan ez zela minimora iristen». Etorkizunera begira «eskola berriz irekitzeko esperantzarik ez dago. Horregatik, herri giroa indartzeko zerbaite antolatzeko asmoa dugu».



Xabier LEGARRETA ETXARRI

ARANO. 2 HAURREN AITA

«Herrigintza eskolek gure herriaren ezagutzan sakontzea dute helburu»

«5 eta 9 urteko nexka eta mutikoa» ditu Xabierrek eta egunero Aranotik Goizuetara joaten dira eskolara «batekoz beste 40 minutu» pasatzen dituzte bidean. Autobusak Goiko Herria, Beheko Herria eta Surorako joan etorria egiten du eta gehienak etxe etxe hartzen ditu, «apartexego dau den baserrietatik auzo bide horietara ateratzen dira autobusa hartzeko». 3 urtetik 14ra bitarteko 17 haur joaten dira Goizuetara eta egoerak herri giroan duen ondorioa «ez dela positiboa» dio «herria hustu egiten delako bateatik eta eskola batek suposatzen duen guztia galtzen delako bestetik; lanpostuak, zerbitzuak...». Herriarekin lotutako gaiak lantzerakoan hutsunea ere nabaritu zuten eta hori betetzeko sortu ziren iaz herrigintza eskolak. Gurasoak inplikatu dira eta egoera «nahiko natural bizi» dute «badakigulako eskola propioa edukitzea zaila dela». Eskola herrian edukitzea «Aranok bere gain hartu ez lezakeen karga hartu beharko luke beharrezko azpiegiturak bermatzeko eta gainera ume kopurua ere bermatu beharko litzateke. Goizuetako eskola bi herrietako umeak jasota txikia bada, pentsa bitan zatituko bagina!». Aranok gaur egun «haur kopuruari dagokionez momentu oso ona bizi du eta lehenabiziko behar dena horixe da. Baina belaunaldi baten falta da kezkatzen gaituena, orain 15-27 urte bitartean beharko litzuketzen gazte horien hutsa beti nabarituko baitugu». Hala ere, «eutsiko diogu herriari eta bere izaerari, ziur nago!».

**Nire txanda**

Jon ABRIL

Ikusezina

Oihartzun eta burrunba handiarekin hasi du-te Baztanen *Zaindari ikusezina* filmaren grabazioa. Aitortuko dut ez dudala irakurri ez liburu hori, ez sail bereko bertzeak ere. Eta ez zaizkidala batera erakargarriak egin, ez bakarrik generoagatik. Baztan (edo bertze lurralde bat, berdin dit) mitifikatzeko modua, gezurrezko irudi bat eraikitze-ko behar hori ez zait erakargarria egiten; are gehiago, horien kontra nago. Eta ez dut zalantzarik turismoari, merkataritzari eta bertze hainbati on eginen diola honek guztiak (nahiz hemengo sosik gehienak Madrileko ekoiztetxe batek eramanen dituen). Fikziotik dena izanen du filmak. Ez dut uste bertako kultura eta hizkuntza ezabaturik, ikusezin eginek islatu daitekeenik lurralde bat, alegiazkoa bada ere. Nahiago nuke *best seller* baten promoziotik bizi beharrean, aberastasuna geure-geuretik sortzeko gauza bagina, dugunari balioa emanez, estimatuz eta salduz. Baina gai horretan ere, konplexuz beteak segitzen dugu. Betti zaindarien zain, ikusezin egiten bagaituzte ere.

«Beti zaindarien zain, ikusezin egiten bagaituzte ere»

Ezpala


Aitor AROTZENA

Urrunekoa hurbilduz

Sesamo auzoan bizitzeko aukera izan genuenok badakigu aski ongi hurbil eta urrutiren arteko ezberdintasuna: etxeko baten errausin tikiena kanpotar baten minbizia baino larriagoa da; norbait hil dela aditzen dugunean, oinazea ere hurbiltasunaren arabera izan ohi da. Brusela eta Lahoreko atentatuek izandako oihartzunarekin, hori ez dela umeen kontua bakarrik ikasi dugu.

NabarmentzekoakLeire RETEGI FERNANDEZ
Leitzako txistularia

7 urterekin hasi zen txistuarekin eta egun Pablo Sarate kontserbatorioan erdi mailako 2. kurtsoa ari da bukatzen. Herri XI. txistulari gazteen txapelketan taldekako saria lortu du.

Ane PETRIRENA
Sunbillako kirolaria

Espainiako junior mailako txapelketan 200 metroko lasterketan urrezko domina lortu du. Gainera bere markapersonala 13 zentesimatan hobetu du, 24.46ko denborarekin.

Arkaitz VICENTE
Berriz ere saritua Ordizian

Ordiziako Artzai Egunean gaztaren erregulartasun kalitate saria jaso du berriz ere Sunbillako Lizun gaztandegiak, urte osoan eta urtetan egindako lanaren erakusgarri.

Atzera begira → 2006-V-13 / TTIPI-TTAPA 420 zk.

**Sarako Gaztetea 15. urteurreneko ospakizunetan**

Duela hamar urte, 15. urteurreneko ospakizunetan zebilen Sarako Gaztetea eta hortaz aritzeko, Joanes Garcia Gazteteako presidentearekin izan zen TTIPI-TTAPA. «Euskal kultura gazteengan zabaltzeko eta gazteek haien iritzia plazaratzeko tresna egokia da Gaztetea» aipatu zigun Garciak. Egoera txarrean zen egoitza moldatzearekin hasi ziren Gazteteako sortzaileak, baina geroztik talde famatuak ekarraziaz zituzten. Horren erakusgarri Ortziral Saindurako iragarria zuten kontzertua, Suediako Clawfinger, Sarako BKBO, Kataluniako La Troba Kung fu eta Irungo Bad Sound System taldeekin.

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagunduaBortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagunduaMEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARRA

Kolaborazioak

Sagardoaren grazia

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Garizuma-haizea libre ibilki da fir-fir kanpoan. Ez dakit debozio askorik ekarriko ote duen jendea Aste Santuko funtzioetara animatzeko, baina hotza behinik behin bai. Idortzen ari da gure etxeko paretetan agertu zen euri-negarra; bizi naizen ziutate kokorrean ere franko bota baitu aurtengo martxoan. Automobila hartu, eta herrira abiatu gara. Sagardolekuak bisitatu gogo ditugu, baina ez pentsa kasaila bertzerik ez den sagardotegi horietara joan nahi dugunik. Lau baserrikako ateetan jo dugu. Espezial hartu gaituzte Soroan, Martintxeberrian, Eskribaueneko Bordan eta Etxebertzean. Hango sagardogileekin solasean aritu gara presarik gabe. Nahi genuen jakin nola egiten duten edo zer gisa egiten zuten mama gustagarria. Banaka-banaka dardaratu ditugu lau gizon, arbolak balira bezala, eta hasi dira hitzak parrastaka erortzen. Erakutsi dizkigute euren fabrika partikularretako erremintak: xixkia, ondaskia, dolarea, pisoia, tina, barrika. Aipatu dizkigute sagar klaseak, gezak eta gaziak, eta haien izenak: piko sagarra, xarpa, geza xuria, merkalina, andre sagarra, xalaka, san martin sagarra, xortxiko, patzulua. Errandigute nolana hasten dituzten, muztioa saminagoa edo gozoagoa izateko, eta zer den sagardoaren garra. Sekretu guziak ez dizkigute kontatu, baina badakigu ilargiari erreparatzen diotela botilatzeke tenorean. Etiketarik gabeko sagardo paregabea probatu ere egin dugu, bizitzaren eskolako irakasle jakintsuenek egina. Sagarra xehetu eta zanpatu ondotik gelditzen den patsa aziendek gustura jaten duten bezala, guri ere lau etxe horietan bildu ditugun hitzak eta istorioak sagar umoak bezain gozoak iruditu zaizkigu. Alde egin baino lehen, bueltaxka bat eman dugu sagardegian barna. Ihartzen hasia zen arbolari tatarra kendu diogu: mihura puska bat. Eri bide dagoenak ere ematen du ona. Atean paratuko dugu, gaitzetatik libratzeko. Eskerrik asko, Felipe, Luis, Joxejuan eta Martin! Zuengatik ez balitz, ez ginateke gauza izanen ezta zizarra, pitarra eta sagardoa bereizteko ere.

«Sagarra xehetu eta zanpatu ondotik gelditzen den patsa aziendek gustura jaten duten bezala, guri ere lau etxe horietan bildu ditugun hitzak eta istorioak sagar umoak bezain gozoak iruditu zaizkigu. Alde egin baino lehen, bueltaxka bat eman dugu sagardegian barna»

Emakumeon eskubideak, herri galdeketen menpe?

Elurre IRIARTE BAÑEZ (Plazara Dantzara Ekimena)

Hauxe da azken astean Luzaideko Bolanten batzordeak planteatu digun galdera. Urte anitzetan eman den bazterketa publikoa eta onartua mantendu behar den ala ez galdetuko dute. Bazterketa sexista-kolektiboa egiten segitu behar duten ala ez harro zabaldu dute komunikabideetan, inongo konplexurik gabe, eta proposamenari kutsu aurrerakoa eman nahian gainera. Naturaltasunez egin dute, naturalizatu daudelakoz emaztekin kontrako erasoak. Eta batzuek diote, “herriko aferak dira eta bertako herritarrek erabaki behar dute”, baina hori ere ez da kasua. Diskriminazio hori ospatzera eta txalotzera kanpotik heldu direnek ere parte hartzen ahal dute. Herritar hauek, emakumeon eskubideak urratzen ahal duten edo ez erabaki nahi dute, Nafarroako jendarteren isiltasun konplizearen babesarekin. Bolanten batzordeak, Baztango mutil-dantzetan pasatutakoa gogoan, Luzaidek galdeketa eta parekidetasunerako borondatearekin auzia bertze modu batera bideratzeko asmoa omen du. Ez dugu zalantzan paratzen batzuen borondatea, baina auzia ez da inondik ere konpontzen eskubide urraketak demokraziaz disfrazatuz, edota bertze eskubide urraketa batekin, eta horixe da Luzaidetik planteatu dena. Emakumeok ez dugu baimenik eskatu behar plazetan egoteko; ez dugu onartu beharrik bertzeek ze jantzi behar dugun erratea; ez dugu onartuko ere, bertze batzuek gure eskubideak negoziatzea. Luzaiden ematen ari dena, bazterketa sexista da, emakume guzien kontrako eraso da. Erantzun kolektiboa eskatzen duen eraso kolektiboa, erran nahi baita. Luzaiden egindako galderetan “neskak” paratzen duen tokian “beltzak”, “ijitoak”, “homosexualak”, “transsexualak” edota “errefuxiatu siriarrak” paratuko bagenu? Hau da, “ijitoak dantza taldean parte hartzearen alde zaude?” Eta “Nola beztitu behar dute beltzek?” Eta “Zein pertsonaia ordezkatu behar dute transexualek?” Eskandalagarria litzateke, onartezina! Egun batzuk pasa dira berria publiko egin zenetik baina ez dugu ikusi galdeketa honen kontrako iritzi artikulurik, ez ditugu martxoaren 8an pankarten gibelean egon diren ordezkari politikoak bidegabekeria hau salatzen ikusi. Ikaragarria da, nola kasu honetan tokiko zein Nafarroako instituzioek ere, eskubideak bermatzeko duten erantzukizuna alde batera utzi duten. Europako bandera Parlamentutik erretiratu den aste berean, errefuxiatu siriarrakin gertatzen ari den eskubideen urraketa salatzeke, “persona guzien eskubideak nagusitu daitezten” aldarrikatzeko. Logika honetan, ez da Europakoa parlamentutik erretiratu beharke litzatekeen bandera bakarra.

«Emakumeok ez dugu baimenik eskatu behar plazetan egoteko; ez dugu onartu beharrik bertzeek ze jantzi behar dugun erratea»

Irakurleak mintzo

Etxean nahi ditugu

Idoia Alkorta. Joxe Martin Errazkin. Oskar Goñi. Imanol Larrañaga. Xabier Lluçia. Josu Unson. Ainara Fresneda. Joxelu Etxeberria. Iñaki Fagoaga. Andoni Sarasola. Enrike Erregerena. Pako Etxebeste. Bernardo Iparragirre. Bittor Jauregi. Xipri Fernandez. Xotero Etxandi. Jone Lozano. Joxe Jabier Nieto. Mikel Nieto. Juan Mari Beloki. Josu Iparra. JuanMiel Apezetxea. Iñigo Elizegi.

- **Mikel Karrera.** Soto Del Realen, Arantziatik 467 Km tara.
- **Joseba Aranibar.** Soto Del Realen, Beratik 450 Km tara.
- **Txistor Haranburu.** Lanne-mezanen, Saratik 210 Km tara.
- **Igor Portu.** Cordoban, Lesakatik 880 Km tara.
- **Mikel Sansebastian.** Murcia II-n, Lesakatik 800Km tara.
- **Mattin Sarasola.** Jaenen, Lesakatik 817 Km tara.
- **Joseba Iturbide.** Fleurn, Lesakatik 985 Km tara.
- **Txus Goikoetxea.** Sevilla II-n, Uztegitik 980 Km tara.
- **Ibon Fernandez Iradi.** Lanne-mezanen, Lesakatik 230 Km tara.

Eta hauekin batera, etxetik ehundaka eta ehundaka kilometrotara beste 390 Euskal Preso Politiko gehiago.

ETA-k borroka armatua utzi eta lau urte baino gehiago pasa eta gero, espero ez genuen jarrera bortitza aurkitu dugu estatuen aldetik. Euskal Preso eta Iheslari Politiko-en aurkako bortizkeria, jazarpena, zigor erantsiak... etenik gabe, salbuespen neurriak ezartzen dizkiete, eta haiekin batera beren senideen sufrikarioa areagotzetik etekin politikoa atera nahian ari dira Madril eta Paris. Eta egoera lasgarri honen aurrean, argi, garbi eta ozen, aski dela esaten dugu. Aski dela eta etxean nahi

ditugula Euskal Preso eta Iheslari politiko guztiak. Eta horretarako ezin gara inoren zain egon, guk geuk, herriak ekarrazazi behar ditugu. Euskal Preso Politikoak eta hauen senideak babestuz, mugituz, antolatuz, lanari ekinez.

Apirilaren 17an, Preso Politikoaren nazioarteko egunean, eguerdiko 12:00etan, Bilbon eginen den manifestazio nazionalera etortzeko deia egiten dizuegu gutun hau sinatzen dugun preso politiko ohiok. Gu, han izanen gara.

AMNISTIAREN NORABIDEAN, EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA.

Xabinari

Lourdes TELLETXEA (Labaien)

Eskermila hainbertze urtez herritarrei atenditzeagatik eta urte guzi horietan emandako tratu onagatik. Zure tiendara hurbildu naizen guztietan ongi atenditua sentitu naiz. Eskatutakoa momentuan jasoz eta inoiz denbora galduarazi gabe.

Oroitzen naiz ttikitari aunitzetan joan behar izaten ginela etxeko nahiz barrideko mandatuak egitera. Batzutan ordu txarretan ere bai. Hala ere Xabina, zu beti irrifartsu eta gogo onez. Atsontzenetik falta zinen momentu bakarra mezako ordua zen; eta orduan ere, hau akitu eta prisaka hartzen zenuen lekua mostradore atzean.

Zure tienda beti irekia egondu da behar izan duen guztiei laguntzeko, herritar nahiz kanpotar. Bertan denetatik duzu: jatekoa, jostekoa, janztekoa, sukaldeko zein lanerako behar zen edozer. Ez dira gutti izan zuri esker libratutako afari, bazkari edo gosariak.

Errango nuke Xabina, zuri gehien gustatzen zaizuna dela haurrak, ttikiak, tiendan ikus-

tea. Ez zara asperten ttikiei bestak egiten eta beti esku-betarekin ateratzen dira. Herriko haurrek beti ezagutu dute Xabina nor den.

Atsontzeneko mostradorea beti paper ttikiz beteta egoten da. Kalkuladorearekin fidatzerik ez baitago! Paperak sumaz beteta, numero ttiki-ttikiak eginez ta eskolan ikasi bezala "seis y ocho catorce, y cuatro dieciocho, y tres veintiuna y me llevo dos..."

11 eraso 12 erantzun feministok prest!

Izargi ZUMARRAGA ETXANDI (Baztango Bilgune Feministaren izenean)

Euskal Herriko mugimendu feministako kideek apirilaren 9an Gasteizen eginen dugun indarkeria matxistaren aurkako manifestazio nazionalerako deia egiten dugu. 11 eraso, 12 erantzun. Feministok prest! lelopean. Egunean zehar antolatua diren ekintzetan parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu, kaleak betez.

Egun honek hiru helburu ditu: alde batetik, eraso matxistak salatzea; bertetik, azken aldiaren ematen ari den mugimendu feministaren kriminalizazioa salatzea eta bukatzeko, bortizkeria zer den, bere modu anitzak eta nola identifikatu, tratatuko dituen hausnarketara bat eta debate sozial bat sustatzea.

Apirilaren 9ko zita horri begirako atxikimendu kanpaina bati ere hasiera eman diogu; feministok prest!! logoarekin argazkiak egin eta hauek sare sozialetan #FeministokPrest etiketa erabiliz partekatuz edota feministokprest@gmail.com helbidera bidaliz.

Baztango Bilgune Feministatik aldarrikapen egun hone-



tan parte hartzera deitzen zaituztegu. ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE! Informazio gehiago: www.feministokprest.wordpress.com

Moja eta whiskya

Itzulpena: Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ (Auritz)

98 urte zeuzkan irlandar Ama Nagusia, ohatzean zegoen hiltzorian. Mojak inguruan zeuden, haren azken bidaia atseginagoa izan zedin. Saiaitu ziren ematen esne beroa, baina ez zuen nahi izan. Mojatxo batek sukaldara eraman zuen edontzi esnea, gogoratu zuelako Eguberrietan norbaitek oparitu ziela irlandar botila bat whisky eta esnari zurrusta on bat jarri zion. Ama Nagusiaren ohatze ondora itzuli eta edontzia ahora hurbildu zion. Ama Nagusiak zurru-padatxo bat edan zuen, gero beste bat eta mojak ohar-tzerako, den-dena irentsia zeukan. Mojek honako hauxe eskatu zioten:

- Ama, hil baino lehen, esaguzu, mesedez, zerorren azken jakinduria-hitza!

la-ia batera indarririk gabe, pixka bat tentetu eta esan zioen:

-Ez ezazue behi hori saldu!!!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Europarrok naturaren oso pertzepzio okerra daukagu. Guretzat paisaia polita golf zelai bat da: garbia, txukuna... Zenbat aldiz esaten da *basoa zikin* dagoela *sasi asko dituelako*, edo kexatu gara ibaietako egur hilaz ibaiari dakarkion onuraz ohartu gabe? Uholdeak gehienetan ez dira gertatzen ibai zikin dagoelako, ibaiertzak okupatu ditugulako baizik».

Arturo ELOSEGI
EHUKO ibaien ekologia tald.
ARGIA 2016.03.27



«Nik uste dut giltzarria hurbiltasuna dela. Jendeak etxeko hedabidetzat hartu du Xorroxin. Parte hartzea ere beti bultzatu dugu, eta nik uste dut entzuleek estimatu izan dutela hori. Jendearen kezkek, zalan-tzak eta bertzelakoak zabaltzeko aukera eman du Xorroxinek. Erran daiteke sozialki ere hari bat lotzen duela Xorroxinek gure eskualdean».

Josetxo APEZETXEA
Xorroxin Irratiko esataria
NAF.HITZA 2016.03.25

11 galdera labur

Nor dugu Oihane Kalderon?

25 urteko leitzarra, nahiko saltse-
ra, erronkazalea, ezetz esaten ez
dakien horietako.

Saltsa guztietako perrexila?

Bai, hala diote... Beti diot nire egu-
neko 24 orduak tetris partida bat
diruditela. Lana, udala, kirola, ai-
sialdia uztartzeko agenda ongi an-
tolatu behar!

Zein afizio dituzu?

Musika, irakurketa eta bidaiatzea.

Hezitzailea zara.. hezitzaileak berak, zertan hezi behar du?

Batetik, ikuspegi zabal, enpatiko eta
aldi berean kritikoa izateko presta-
tu behar du. Bestetik, entzuten ja-
kitek eta ibilbidea zeharka marka-
tzeko prestatu behar du, prozesuak
bideratu behar ditu. Hezitzailearen
helburu nagusia pertsonen ahal-
duntzea lortzea da.

Zein da heziketa on baten oina- ria?

Inklusioa, berdintasuna, autono-
mia, inizatiba, umorea, ikasteko
grina, hanka sartzeko aukera kon-
trolatuak izatea, ilusioak eraberri-
tzeko indarra eta begirada eralda-
keta sozialean izatea.

Eta zer dago soberan?

Aukeratzeko aukerarik ematen ez
duen heziketa zurrun, lehiakor eta
autoritarioa eta gizartearen indarre-
an dagoen hipokresia.

Zer du soberan Leitzak?

Maxurrenean bizi diren lagunak.

Zer falta du?

Itsasoa.

Zer behar duzu zorionsu izateko?

Familia, lagunak, osasuna, bizi-
rauteko diru pixka bat, erronkak
eta ilusioak.

Zerk lotsarazten zaitu?

Momentu honetan Europak, per-
tsonak legez kanpokoak izan
daitezkeela sinestarazi nahi digu-
telako, batzuen bizitzak bestee-
nak baino gehiago balio dutenaren
ideia bonbar-
datzen dute-
lako...

Amets bat?

Bakarra?
Munduari
bira ematea.



Oihane KALDERON → Leitzako gaztea

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 0899
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

LABEZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

BEHOBIA
Pneumatikoak eta zerbitzuak

Marka guztietako gurpilak
nitrogenoarekin puztea dohainik

Mekanika orokorra
(olio aldaketa, frenoak, distribuzioak,...)

Alineazioak

Europa kalea, 18 - ZAISA I (Behobia) IRUN
Telf: 943 63 56 01 E-mail: pneumaticosbehobia@gmail.com

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

zalain

BERA

KULTURA → ANTZERKIA ETA OROIMENA UZTARTUZ

Arte adierazpenaren bidez oroimena landu nahi dute

Antzezlan herrikoi bat sortzea proposatu dute

TTIPI-TTAPA

Berako Euskara eta Kultura Batzordeek, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera, antzezlan herrikoi bat sortzea proposatu dute. Antzezlanak Errepublikara abiapuntuz hartuta, gaur arteko historia aztertuko du, Espainiako Gerra Zibila piztu zela 80 urte beteko direnean. Antolatzaileek diotenez, «oroimena lur emankorrean erein ahal dugun

hazia da. Arte adierazpenak nondik gatozen eta non gauden konprentzen laguntzen ahal digute, urrutitik datozen bizipenak askatzaileak izan daitezten».

Sormen prozesua herrikoia izanen da eta bi etapatan garatuko da. 2016an zehar prestakuntza garaia izanen litzateke edo 2017ko udaberrian herri emaldia eginen litzateke. Denboraldi honetan, udaberri hondarrea hasiz, bi tailer eginen litzateke. Alde batetik, oroi-men tailerra eginen da, hileko lehen eta hirugarren ortzegunetan, 16:00etatik 21:00etara Beralandetan espazio



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederra izan dute San Jose Zahar Etxeko Aste Kulturalan

Martxoaren 14tik 20ra Aste Kulturala izan dute San Jose Zahar Etxean eta giro ederrean ospatu dute. Ehiza eta Arrantza soziedadean basurde jatea, Mikel Iriarte eta Gabriel Canariasen eskutik musika kontzertua; talo tailerra eta dastaketa, Herri Kirolak, bertso saioa umoretsua, Mus eta Partxis txapelketa eta bukatzeko, dantza erakustaldia izan zuten.

bat irekia izanen da, non jendeak garaiari buruz dakiena eta adierazi nahi duena ematera agertzeko modua izanen duen. Joan ezin duenari bisita ere eginen diote. Bildutako testigantza horiek lan artistikoaren inspirazioa izanen dira eta tailerra jendeen arteko eiazgutza handitzeko tresna ere.

Uda hasieran adie-

razpen artistikoaren tailerra martxan jarriko da, ondoko betebeharrekin: antzezlan egituratu, aktoreen prestaketa eta gainerako adierazpen artistikoak. Tailerrean parte hartzeko bi baldintza eskatzen dituzte: adierazpenerako gogoia izatea eta euskara ezagutzea. Ez da adin mugarik izanen: edozein herrikoi hau, gazte edo

helduek parte har dezakete.

Ekimenen parte hartu nahi dutenek herriantzerkia@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar dute edo Bortzirietako Euskara Mankomunitatera (948 634125) edo Ramon Al-bistur, ekimenaren zuzendari artistikoari (948 631162 edo 600 393193) deitu.

GIZARTEA → AZKEN UDAL BATZARREAN

Liburuzainaren lanpostu deialdia deuseztatzeko eskaera berretsi du Udalak

Euskara derrigorrezko izatea jartzea eskatu du

TTIPI-TTAPA

Berako liburutegiko enkargatuaren lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia zu-

zenbide osoz deuseztatzeko alkateak Nafarroako Gobernuari egindako eskaera ahabatez berretsi du Udalak azken batzarrean.

2015eko irailaren 24ean batzarrean alkatearen izenean egin zen eskaera eta orain berretsi egin du erabakia Herriko Etxeak, deialdi ho-

ri bertan behera uztea eskatuz. Batzar hartan, liburutegi arduradunaren lanpostuaren hizkuntza perfila plantilla organikoan aldatzea eta euskara merezimendu gisa izan beharrean derrigorrezko izatea jartzea eskatu zuten eta horren ondotik, lanpostua betetzeko deialdi berria onestea.

Orain arte Nafarroako Gobernuak ez dio erantzunik eman Udalak eskatu zionari, baina, udalari iruditzen zaiola lanpostu deialdi hura zuzenbide osoz deusez dela, konstituzioaren babesa duten askatasunak eta eskubideak urratzen dituelako. Udalak lanpostua betetzeko deialdia

ofizioz berrikustea eskatu du, zuzenbide osoz deuseztasuna aitortzeko eta ofizioz berrikuste hori izapidetzen den bitartean, Gobernuaren zerbitzuko liburutegiko arduradun izateko lanpostua oposizio-bidez betetzeko deialdia etetea, hautagaiei sor liezazkiekeen kalteak saihesteko.

GIZARTEA → APirilAREN 9AN

Gure Txokoako batzar orokorra larunbatean egingen dute

lamoteneko egoitzan, 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarrean

TTIPI-TTAPA

Urteroko moduan Gure Txokoa elkarteak bere bazkideei deialdia zabaltzen die apirilaren 9an lamoteneako egoitzan egingen den Ohiko Batzar Orokorrean parte hartzeko. Lehenbiziko deialdia larunbatean 19:30ean izanen da, eta 20:00etan, bigarrean.

Gai ordenari dago-kionez, hasteko, 2015eko maiatzaren 20ko Batzar Orokorreko akta irakurriko da, eta bazkideek onartuko dute, ontzat jotzen badute. Ondotik, sail ezberdinetako arduradunekin batera, 2015eko ekin-tzen inguruan solastuko da, 2015eko kontuen balantzea aztertuko da, eta 2016rako aurreikusiak dauden ekin-tzak aipatuko dira, bertzeak bertze. Azkenik, galde-eskeen txanda

izanen da batzarrari bukaera emateko.

Liburuaren Eguneko ekitaldiak

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko bi ekitaldi antolatu dituzte herri liburutegian. Apirilaren 8an, ortziralean 17:30ean *Kulunkantauri* 3 eta 9 urte arteko haurrentzako ikuskizuna eskainiko dute. Hilaren 22an, ortziralean 17:30ean, *El viaje de las letras* emanaldia izanen da. Ondotik, *Irakurketa instant batean* argazki lehiaketako sari banaketa egingen dute.

Mendi Maratoi Erdia ikusteko ibilaldiak

Apirilaren 17ko probaren berri zehatza topatuko duzue kirol orrialdetan, baina ikusle moduan ere bada egun horretan giharrak mugitzeko aukera. 08:30ean Bera-Larun-Bera eskursioa abiatuko da eta (14 kilometrokoa) eta 09:00etan Bera-Usatitak-Landagañeta-Bera eskursioa (10 kilometrokoa). Larun eta



ARGAZKIA: A. AROTZENA

10 Tona janari eman diote Martikoko langileek Elikagai Bankuari

Martiko enpresako langileek 10 Tona produktu eman dizkiote martxoaren 18an Nafarroako Elikagai Bankuari. Joan den otsailaren 26an elkartasun eguna egin zuten Martikon, eta langileek opor egun bat erabili zuten pate, mousse eta aha-te-konfita bezalako janarien 10 Tona produzitzeko. Gisa honetako lehen ekimena izan dela onartu dute eskerturik Nafarroako Elikagai Bankukoek.

Usatitan korrikalariak animatu eta berriz ere helmugaratzen ikusteko aukera polita.

Udalbiltzan sartzeko eskaera

Udalbiltza Partzuegoa zein bere estatu-tuekin bat egitea eta bertan sartzeko eskaera luzatzeko espedienteari hasiera eman dio Udalak. Josu Irtzoki alkatearen erranetan, «Udalbiltzaren helburua da Euskal Herriko udalak biltzea elkarrekin la-

na egin eta laguntzeko. Azken urteetan geldirik egon da, partaide batzuk kartzelatu zituzten eta, orain, berpiztu da berriro».

Proposamenaren alde bozkatu zuten EHBil-duko 6 zinegotziek eta Herrirako hiruk. Herrirako German Castillo abstenitu egin zen. Erabaki hori azaltzeko erran zuenez, «Nafarroako Udal Federazioaren antzekoa da, politika tendentzia bakoitzak bere erakundea sortzen du».



Ba al zenekien

Transgenikorik gabeko herria dela Bera, Udalak Amigos de la Tierra, CECU, COAG, Ekologistak martxan, Greenpeace eta Hazien Sarea elkarteek bidalitako idatzia ahobatez onartu ondotik. Udalaren menpe dauden arlo eta guzietan glifosatoa erabiltzeari utziko zaio eta produktu ekologikoak, gehienbat bertakoak kontsumitzearen alde egingen da.

FLASH

Oneka marrazoa igandean

Ene kantak taldearen *Oneka marrazoa* haurrentzako ikuskizuna antolatu du Labiaga ikastolak apirilaren 10ean, igandean 17:00etan Kultur Etxean. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

Magia ikuskizuna haurrentzako

Oliver magoak haurrentzako magia ikuskizuna eskainiko du apirilaren 17an, igandean 17:00etan Kultur Etxean. Sarrera 5 euro ordaindu behar da.

Esnearen Liga

Berako taldearen hurrengo bilera apirilaren 25ean, astelehenean 17:00etan egingen dute Beralandetan eta *Nola hasi elikadura osagarriarekin bularra ematen dudan bitartean?* gaia landuko dute. Bilera irekiak eta doakoak eta haurrek ere ongietorriak direla jakinarazi dute.

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

LESAKA

KULTURA → APIRILAREN 17AN

Tantirudantza jaialdiak hainbat dantzari bilduko ditu herrian

Tantirumairu,
Zumaia,
Getaria eta
Tolosako tikiak
ariko dira
dantzan

Aitor AROTZENA

Tantirumairu Euskal Folklore dantza taldeak Udalaren laguntzaz antolatuta Tantirudantza jaialdia ospatuko da apirilaren 17an. Herriko Tantirumairu dantza taldeko neska-mutikoekin batera, Zumaiaiko Txori txiki dantza eskola, Getariako Gure Txeru eta Tolosako Udaberri taldekoak ariko dira.

Goizeko 11:00etan kalejira eginen dute taldeek bakoitzak bere aldetik. 12:15ean *Zubigainekoa* dantzatuko dute herriko dantzariak eta ondotik plazan bilduko dira lau taldeak saioa eskaintzeko. Kanpoko dantzariak herrikoen etxeetara joanen dira bazkaltzera eta arduradun eta musikariak elkarrekin bazkalduko dute. 17:30ean plazan Porruru DJ-a haurrentzako erromeria izanen da. Eu-

ria eginen balu frontoian eginen da.

Gasteizera bidaia antolatu du San Fermin elkarteak

San Fermin erretiratuen elkarteak Gasteizera bidaia antolatu du apirilaren 21erako. Plazatik 08:00etan abiatu eta bidean geldituko dira gosaltzera. Añanagatzan erromatarren garaiko gatzagak ikusiko dituzte eta gero Gasteiz bisitatuko dute. Bazkaria La Bilbaina jantzetxean eginen dute eta bazkalondoan erabakiko dute Gasteiz bisitatzeko segitu edo herrirako bueltan Tolosaldean gelditu. Txartelak apirilaren 14a arte har daitezke egoitzan, 35 euro ordainduz (Añanako sarrerak barne direla).

Bertze aldetik, otsailaren 15ean jokatu gabeko gelditu zen mus txapelketa apirilaren 18an, 17:00etan hasita jokatuko da.

Neskatoak dokumentala

Jon Abrilek zuzendutako *Neskatoak* do-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Txamukos mariatxi taldeak lehen diska aurkeztu du

Txamukos mariatxi taldeak *Bidean topatuko gara* bere lehen diska aurkeztu zuen martxoaren 19an, jendez lepo zegoen Harriondoa Kultur Etxean. Aurkezpena ez zen musika emanaldi hutsa izan, antzezle talde batek bere ikuskizuna ere eskaini baitzuen, diska osatzen duten hamalau kantuak aurkezteko.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Musika Eskolako ikasleen Udaberriko Kontzertua Harriondoan

Hiruhilabeteari bukaera emateko eta Aste Santuko oporrei ekiteko Udaberriko kontzertua eskaini zuen Musika Eskolak martxoaren 22an Harriondoan. Banaka, binaka eta taldeka jo ondotik, emanaldia borobiltzeko, musika tresna taldeak eta abesbatza tikiak elkarrekin eskaini zituzten hiru abesti.

kumentala ikusteko aukera izanen da apirilaren 9an, larunbatean 19:00etan Harriondoan.

Zahar Etxean kontzertua

Andra Mari Zahar Etxe-

an kontzertua eskainiko dute Jose Ignacio Muruak eta Alberto Alvarezek apirilaren 18an, astelehena, 17:00etan, Elkarrizan laguntza emaila taldeak antolatuta.

Ba al zenekien ?

**Giltzarri Abesbatza-
ren 20. urteurrenaren
baitan Haur Kantari-
en Topaketa eginen
dutela hilaren 16an.**

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.eus

ARANTZA

KULTURA → BERTSO TRUK EKIMENAREN BAITAN

Bortzirietako eta Algortako bertso eskolen arteko desafioa larunbat honetan

Poteoak izanen dira eguerdian eta ilunabarrean eta bazkaria Ekaitza Elkartean

Nerea ALTZURI

Helduen bertso eskolen arteko hartu-emanak bulkatzeko asmoz jaio zen Bertso Truk ekimena joan den azaroan. Euskal Herriko bertso eskolen arteko desafioak dira eta eskualdeari dagokionez, lehenbiziko hitzordua Lesakan egin zen eta bigarrena, herrian izanen da larunbat honetan, apirilak 9.

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Algortako Bertsolari Eskolak hartuko dute parte. 13:00-etan poteoa abiatuko da Aterpetik. Ondotik, bazkaria egingen dute Ekaitza Elkartean eta 18:30ean bertze poteoa egingen dute herriko ostuetan barna.

Akatsak zuzenduz

Aitzineko alean, maiatzaren 13tik 15era antolatutako mendiaren inguruko egitarauaren berri eman genuen. Mendi lasterketa lehenbiziko aldiz egingen da maiatzaren 14an; eta VIII. mendi itzulia izanen da maiatzaren 15ean egingen dena. Bar-katu eragozpenak.

Julen Oskoz izendatu dute Ekaitza Elkarteko lehendakari berria

Ardurak banatu ditu Ekaitza Elkarteko Zuzendaritza Batzorde berriak. Horren arabera, Julen Oskoz izanen da ondoko bi urteetan lehendakaria, Juanita Larralde lehendakariordea eta Euskara Batzordeko arduraduna, Xabi Etxague idazkaria, Maitere Pagola eta Gaizka Almandoz diruzainak, Aitziber Almandoz eta Idoia Etxeberria mantenimendu arduradunak, Amaia Apaolaza eta Imanol Lukanbio kirola eta kulturakoak eta Andoni Mitxelena bodegeroa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lan gaua mendi ibilaldi jendetsua

Bidasoko Kontrabandisten Bidea elkartearen ekimenez antolaturiko Lan Gaua mendi ibilaldi gidatuan, 115 lagunek hartu zuten parte joan den martxoaren 19an. Egunez, giro euritsua izan bazen ere, gauetz, ateri mantendu zen eta giro paregabea izan zen mendian ibiltzeko. Herritik abiatu eta Argatsora joan ziren. Gero Sastrinetik barna On Jabierren gurutzera; handik Goiko Gainera eta gainera gain, Zepurura ailegatu ziren. Bulatsikira etorri eta bago erreldoan barna, Argatsora itzuli ziren. Larrainenbordako gainekaldetik, Salbatorara, ondotik herrira jautsi eta akautu zuten ibilaldia. Hiru ordu pasatxoko ibilaldian, zenbait geldialdi egin zituzten eta mutiko kozkorretan kontrabandoan aritutako Josetxo Taberna eta Jabier Etxeberria herritarrek eta Xanti Elizagoiein etxalartarrak kontrabando pasadizoak eta azalpenak aditu zituzten. Bulatsikin, gainera, zenbait lagunek aktore lanak egin zituzten, kontrabando garaiko egoera bat antzetzuz. Ibilbide gidatuaren akabailan, Aterpen, txokolata beroa opil, bizkotxo eta maldalenekin hartu zuten.



ARGAZKIA: JOSE RAMON AMOROS

Txamukosekin afari musikatua

Joan den martxoaren 25ean, ortziralean, mariatxi gau jendetsua izan zen Aterpen. Txamukos mariatxi taldeak *Bidean topatuko gara* bere lehenbiziko diskoa aurkeztu zuen afalondoan eta bertan zeudenak gustura egon ziren emanaldiarekin gozatzeko. Gogoratu, iaz, herriko inauterietan taldeak bere debuta egin zuela. Taldean, Beñat Mitxelena eta Jon Koldo Arburua herriko musikariak daude.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

www.olasagardotegia.eus TXOTX GARAI AIREKIA
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

GIZARTEA → EKAINAREN 11TIK IRAILAREN 11RA

Igerilekuko lanak udan hartzeko aukera eman du Udalak

Proposamenak apirilaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira

TTIPI-TTAPA

Uda hurbiltzen dela ohartuta, 2016ko denboraldian igerilekuan funtzionamendu lanak esleitzeko lehiaketa deitu du Igantziko Udalak, sorosle lanak izan ezik.

Udako denboraldian igerilekuen mantentze, garbiketa eta funtzionamendu lanak eramateko da deialdia eta hasierako prezioa 1.500 eurokoa (BEZ barne) denboraldi osorako, ekainaren 11tik irailaren 11 bitarte, biak barne.

Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 26ko eguerdiko 14:00k arte dago zabalik. Baldintzen plegua Igantziko udal idazkaritzan interesatuen eskura dago.

Sarrolako sarrerako bihurgunean hondarrik ez

Sarrolako sarrerako bihurgunean belarra eta hondarrak botatzen dira herriko lur zatian. Udalak kartela jarri behar du, horrelako zaborrik eta bertzelakorik ere ez botatzea eskatuz. Begibistakoa eta gizalgezkoa bada ere, lur hori zabortege moduan ez erabiltzea eskatzen da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriko gaztetxoek parte hartu dute Herri Kirol Jokoetan

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako finala jokatu zen martxoaren 20an Berriozarren eta bikain ibili ziren azken saio horretarako txartela lortua zuten herriko kirolariak (bertze taldea finalaren atarian gelditu zen, 16 talderen artean seigarren izan baitzen lehenbiziko fasean). Proba konbinatuan, kimu mailan (11-12 urte) laugarren izan zen Igantzi B eta haur mailan (13-14 urte) hirugarren Arartziri (Araxes, Igantzi eta Artzanegiren artean atera duten taldea).



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Alberto RETEGI
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTATUA
PINTXOAK
BOCHAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



BAZTAN-BIDASOA

KULTURA → BERAKO KULTUR BATZORDEAK ETA BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLAK ETA EUSKARA MANKOMUNITATEAK ANTOLATUA

Baztan-Bidasoaldeko XXIX. Bertso-paper lehiaketa abian da

Lanak maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira Berako kultur etxean

TTIPI-TTAPA

Berako kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoaldeko 29. Bertso paper lehiaketa antolatu dute, Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat. Lanak Berako kultur etxe-

an aurkeztu behar dira, maiatzaren 20a baino lehen, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira bakarrik eta norberak aukeratuko du gaia, doinua eta neurria.

Ohi bezala, parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: A maila: 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi koplak osatu beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 50 euro (lehenengoak) eta trofeoa eta 30 euro (biga-



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Julen Zelaietak irabazi zuen iaz maila nagusian eta gitararren laguntzaz kantatu zituen bertsoak.

renak). B maila: (11-14 urte) Bi bertso edo lau koplak egin behar dituzte. Saria: trofeoa eta 100 euro irabazleak eta trofeo eta 70 euro bigarrenak. C maila: (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte. Saria:

trofeoa eta 150 euro lehenengoak eta trofeoa eta 120 euro bigarrenak. D maila: 18 urtetik goti. Gutxienez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 200 euro garaileak eta 150 euro bigarrenak.

Bortzirietako bertso eskolak izendatuko du epaimahaia eta sariak hutsik utz ditzake, baina sari bereziak eman ere. Ekainaren 3an, ortziralea, izanen da sari banaketa Berako Kultur Etxean 18:00etan.

GIZARTEA → TTIPI-TTAPAREN ARGITALPENA

Aisialdia eta Gastronomía Gida argitaratu du aurten ere

Turistak ibiltzen diren tokietan banatu dira 7.000 ale

TTIPI-TTAPA


Baztan, Bidasoa eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomía Gida argitaratu eman berri du TTIPI-TTAPAK. Bertan, inguru honetako 85 bat jatetxe, ostatu, komertzio eta aisialdirako enpresen eskaintzaren berri ematen da 60 orri-

aldetan (azkeneko edizioetan baino 20 gehiago), bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak eta zerbitzuak azalduz hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Modu berean, herri-ka antolatua dagoenez, herri horrek eskaintzen dituen zerbitzuen berri ere ematen du, hala nola, frontoia, igerilekua, supermerkatua, gasolindegia, autobus zerbitzua, lo egiteko tokia, turismo bulegoa, osa-

sun etxea edo farmaziarik baden jakinaraziz. Baztan-Bidasoaldeko mapa bat ere badu.

7.000 ale argitaratu dira, ohi baino 1.000 gehiago, turistak ibiltzen diren tokietan banatu zirenak Aste Santua baino lehen, jendeak har dezan eta bazkaltzeko edo afaltzeko plana egiten lagungarri izateko. Era berean, iragarkia jarri duen jatetxe-ostatu bakoitzean ere utzi dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko.



GIZARTEA → MARTXOAREN 19KO BATZARRA

Junta berri- dute Ulibeltzak elkartean

Maider PETRIRENA

Ulibeltzak Elkarteko bilera orokorra martxoaren 19an egin zuten. Gai nagusietako bat junta aldatetarena izan zen. Bi urte pasa ondoren, Mikel Arrieta, Mikel Arretxea, Esteban Korta, Haritz Arriola, Iosu Apeztegia, Joseba Apeztegia, Pablo Maritxalar eta Leire Sanzberrok utzi dute junta. Bilera horretan bozkatuenak eta horren ondorioz bi urte orain juntan egonen direnak Josetxo Apeztegia, Jose Vicente Alzuri, Xabier Espelosin, Gariquitoz Aiesa, Amaia Apeztegia, Irune Agirre, Daniel Bertiz eta Unai Bertiz dira. Bi bazkidek baja eman dute eta hiru berri sartu dira.

Kantu zaharren Eguna

Ariztigain kanpinean Kantu Zaharren Eguna antolatu dute bosgarren aldiz, apirilaren 16an. Bazkaria 14:00etan izanen da eta bazkariaren, afariaren eta liburuaren prezioa, 48 euro. Angel Mariezkurrena eta Aitor Ibarra Jalisko izanen dira kantuen gidari, Francisco akordeolariaren laguntzarekin.

Pintxoaren Astea

Ariztigain, Iturburu, Fonda eta Bustitz ostaltuek beraien IV pintxo astea ospatu dute. Guztira 1.719 pintxo saldu zituzten eta irabazlea Ariztigain kanpineko Karrillera izan zen. Ma-



gra eta bi ardo botilaren irabazlea argazkian ageri den Ibai Karballo, Aurizberrikoa izan da. Zorionak.

Joku topaketa

Malerekako herrietako eskolek joku topaketa ospatu zuten sei garren urtez segidan Sunbillan martxoaren 22an. Sei eskoletako ikasle eta irakasleak elkartu ziren. Taldeetan banatu eta batzuk frontoian zakurren erakus-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Herriko hiru talde Haur Kantari Jaialdian

Eskolako hiru taldek Lakuntzan ospatu zen haur kantu jaialdian parte hartu zuten. Lehenengo taldea LHko 1. eta 2. mailakoek osatzen zuten, bigarrena LHko 3. mailakoek eta hirugarrena LHko 4, 5. eta 6. mailakoek. Hauek Tafallan apirilaren 30ean berriz ere abesteko aukera izanen dute.

taldia ikusten zuten bitartean bertzeak plazan jokoak egiten aritu ziren. Bazkal ondoren DJ Porrurekin dantzan aritzeko aukera izan zuten frontoian. Eguraldiak ederki lagun zien eta ederki pasatu zuten.

Ba al zenekien

Martxoaren 20an Aiegin 22,700 kilometroko II Montejurra Jurramendi Trailean parte hartu zutela Eneko Herrera eta Iñigo Arrieta herritarrek. Kirolarekin segituz, Koldo Herrerak Caja Ruralek antolatzen duen BTT martxen lehen karreran bosgarren postua lortu zuen Tuteran.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Ortiziral Santuko prozesioa

Ortiziral Santuan prozesioa burutu zen. Hasieran 12 apostoluak beraien palmekin eta ondoren pausak. Aurten inoiz ez bezala ilunduta egin zen eta hagitza polita izan zen. Aste Santu honetan eguraldiak lagundu du eta jende aunitz ibili da.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Haurrendako jokuak Ariztigainen

Ariztigain Kanpinean urtero bezala haurrendako jokuak antolatu ziren. Eguraldiak izugarri lagundu zuten martxoaren 27an eta haur pila elkartu zen jokoa egitera. Ondoren txokolatada, patatak eta haur bakoitzari goxokiz betetako poltsa banatu zieten.

DONEZTEBE

GIZARTEA → ALDIZKARIA ERE MARTXAN

Bestetako kartel lehiaketa antolatu du Udalak

Apirilaren 27ra arte aurkez daitezke lanak

Marga ERDOZAIN

San Pedrotako bestak iragartzeko Udalak kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan parte-hartzea idekia da eta interesatuak apirilaren 27ra arte izanen dute lanak aurkezteko aukera. Formatua eta teknikari dagokionez honako oinarriak errespetatu behar dira: lanak A3 tamainan inprimatuko dira (29,7 x 42 zm.) eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 gutxienezko erresoluzioaz. Nahitaez, *Doneztebeko*

bestak, ekainaren 28tik uztailaren 2ra testua izan behar dute. Teknika, berriz, librea izanen da. Pertsona bakoitzak lan bakar bat aurkezten ahal du. Lana sinatu gabe entregatuko da eta lanarekin batera sobre itxi batean egilearen izen abizenak eta kontakturako telefonoa edo posta elektronikoa agertu beharko dira.

BILERA IREKIA

Bestetako programa osatzeko, Udalak deituta, bilera bat egin da herritarren nahiak eta ekarpenak jasoz. Aurrekontuak aztertu eta ideiak landuz aletuko da programa. Bilera horretaz gain, on-line egite-



UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardo Egunak izan dira aurten ere Aste Santuan

Aste Santuaren balorazioa egitean aipatzen ahal da bailara osoan bezala gurean ere bisitari anitz izan dugula, aurreikuspen onak hobetuz. Azpimarratzeko modukoa izan zen Sagardo Egunetako giroa ere. Larunbatean karrikak ibilgailuentzat itxi ziren eta gehienentzat hagitz erabaki zuzena izan da. Kanpotik etorritakoek ez zuten galdetzen karrikak zergatik ziren itxita. Azken finean hainbat tokitan erabaki hori aspaldi hartu zen eta denborak erakutsi du onura gehiago dakartzala alde txarrak baino. Balorazioa ona izanda, beharbada hausnarketarako aukera emanen digu: gure alde zahar ederra ederragoa eta biziagoa izaten ahal da kotxerik gabe?

ko inkesta bat ere luzatu zaie herritarrei.

ALDIZKARIA ERE MARTXAN

Urtero egiten den bezala, aurten ere besterako aldizkaria martxan da. Edukiei dagokionez hainbat ideia dagoeneko badauden arren, aukera eman nahi zaie herritarrei ekarpenak egi-

teko eta artikulua idazteko. Azalaren diseinurako, berriz, aurreko urtetan bezala, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendutako lehiaketa antolatu da. Edukiak, azala, programa eta publizitatea, osagarri guzti horiek ongi nahasita itxuratuko da etxe guztietara ailegaturiko den aldizkaria.

FLASH

Kinto bestak

Kinto besten egunak ezarriak daude. Gazte gehienek apirilaren 23an egingen dute eta hain gazte ez direnek 30a aukeratu dute.

Udal mozioak

EH Bilduk aurkeztuta, Idomeniko eta orokorrean errefuxiatuen aldeko mozioa eta Bruselako atentatuen aurrean gaitzespena adieraziz aurkeztutako mozioa aho batez onartu ditu Udalak martxoaren 29ko bilkuran.

2015eko zuhaitzak

2015ean jaiotako umetxoek, familiak lagunduta, zuhaitz bana landatzeko aukera izanen dute apirilaren 17an.

Mendi Abesbatzak

Atarrabiako Abesbatzen III. txapelketan parte hartuko du apirilaren 24an.

APIRILEKO KULTUR AGENDA

Aste Santuaren ondotik ere hainbat ekitaldi prestatu dituzte

M. ERDOZAIN

Aste Santuko oporraldiaren ondoren apirileko agenda hagitz loratua prestatu da. Ipuin txokoaren emanaldiak: apirilaren 12, 19 eta 26an. Zine emanaldiak, hilaren 10ean *Amama* filma (Udalak antolatua) eta 17an Erreka guraso elkarteak eta DBHko 4. mailako ikasleek antolatutako

emanaldia. Apirilaren 14an, 17,00etan Askin Haur Eskolan *Lóczy, Una Escuela de Civilización* dokumentalean oinarrituta haurren sozializazio baketsuaren inguruko hitzaldia burutuko da. Hilaren 15an *Neskatoak* dokumentalaren emanaldia 19:00etan Herriko Ostatuan. Nazioarteko Liburuaren eguna os-

patzeko, hainbat ekitaldi antolatu dira: 20an Miren Amurizaren eskutik *Kapulana bat zintzilik* ikusteko eta entzuteko aukera izanen dute DBHko ikasleek. 18tik 24ra, Mundukide GKE laguntzaz erakusketa ikusgai egonen da. 21ean, goizean, *Kontu eta Kantu* emanaldia era atsaldean berriz, *Bertsol-Haritz*a emanaldia.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

GIZARTEA → LAU LANGILE ARI DIRA LANEAN

Leurtzako urtegietako denboraldi berria abiatu da Aste Santuan

‘El guardián invisible’ filmeko irudiak ere grabatu dituzte bertan egunotan

Joseba URROTZ

Aste Santuan hasi da Leurtzako urtegietako denboraldia, eta aurten lau langile kontratatu dira bertan lan egiteko: bi zaindari lanetarako eta bertze bi mantenimendu lanetarako.

2014an ordenantza berria martxan paratu zenetik, hainbat enpresa eta erakundek euren ekintzak Leurtzan egiteko baimena jaso dute: 2015ean, Ultzamako Triatloiak, Ornitorrinok eta Irisarrilandek. Aurten *El Guardián Invisible* pelikularen grabaketarako baimena izan da tramitatu den lehenbizikoa. Enpresa hauek eta Leurtzara hurbiltzen direnen ekarpenek, aisialdirako eremu horren mantenimenduan laguntzen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardotegira ateraldia umore onean

Honezkeroko ohitura bihurtu den sagardotegirako ateraldia egin zuten gazteek, aurten martxoaren 12an. Ikusten denez, ongi prestatuta joan ziren, trikitixa eta pandero eta guzti.

EL GUARDIAN INVISIBLE

Dagoeneko gehienek jakinen dute Baztan-Bidasoaldean Dolores Redondo idazlearen *El guardián invisible* liburuan oinarritutako filma graba-

tzen ari direla, baina Urrotzen ere egun batez grabaketa lanetan aritu zirela aipatu behar. Martxoaren 30an izan zen, Leurtzako urtegi- en inguruan, eta 100 lagunetik gotti ibili ziren

gisa guzietako lanetan, figurante andana eta guzi.

Ikusgarria izan zen, dudarik gabe, jendetza, tresna eta mugimenduarengatik. Ea emaitza zein izaten den...

2016 udaberriko kolekzio berria



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea



edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → HAURREK ASTE SANTUAN

Joku topaketak eta zuhaitz landaketak egin dituzte egunotan

Lantxada inguruan 60 zuhaitz landatu zituzten

Arkaitz MINDEGIA

Martxoaren 23an gurean hain erroturik dagoen zuhaitzaren eguna ospatu zen. Goizean goizetik aitzurra eskuetan zutela Lantxada ingurura joan ziren guraso eta haurrak bertan zuhaitz landaketa egiteko. Denera 60 haritz landatu zituzten. Lehenagotik gurasoek auzo-

lanean ingurua garbitu eta zuloak egiten aritu ziren.

Bezperan eta aste santuko oporrak hartu baino lehen Pulunpa eskolakoek urteroko ateraldiak egin zituzten. Martxoaren 22an Sunbillara joan ziren Malekako eskola ttikiek antolatutako 6. Joku topaketan parte hartzeko. Egun osoko egitarauan ikasle eta irakasleek ederki gozatu zuten zakurren erakustaldiarekin, herri kirolekin... bertze eskoletako haur eta irakasleekin batera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko neska-mutikoeek lan ederra egin zuten Zuhaitzaren Egunean.

Nafarroako haur kantarien jaialdia

Urtero antolatzen da Nafarroako Haur eta Gaztetxoek kantari jaialdia eta aurten ere parte hartu du Mendaur trikipandero eskolak. Berriozarren martxoaren 20an ospatu zen jaialdian aritu ziren Sunbilla, Legasa, Arizkun, Oronoz eta Aurtizko ikasleak. Iratxe, Amaia,

Uxue, Oihana eta Arkaitz musikarien laguntza izan zuten.

Parte hartzaile aunitz izan ziren eta saio bikaina osatu zuten denen artean. Jaialdi hauen helburua haur eta gaztetxoei euskara eta kantarekiko zaletasuna piztea da. Orain Apirilaren 30ean Tafallan ospatuko den azken jaialdia prestatzen dabilta.

Btt lasterketak martxan

Denboraldi berria hasi du Javier Seinek eta Euskadiko Openeko eta Rural Kutxako Kopako lehendabiziko lasterketan parte hartu du. In-dartsu hasi da eta bietan postu onean bukatu ditu lasterketak. Ez da ahaztu behar, aurten kategori berrian dabilela Sub 23an.

ELGORRIAGA

GIZARTEA → LANDETXEAN ETA BAINUETXEAN OSTATU HARTUTA

Bisitari aunitz ibili dira herrian Aste Santu honetan

Orzegunean opil jatea antolatu zuten gurasoek

Mattin LARRALDE

Aste Santuak pasa dira eta bisitari aunitz izan dira herrian, landetxean eta bainuetxean

ostatu hartuta. Orzegunean gurasoek opil jatea antolatu zuten, zingar, txistor, gazta eta txokolatzetaz beteta, goxo goxoak zeuden. Ekitaldi arrakastatsua izan zen, jende ugari hurbildu zelako opilak dastatzera. Lan handia egin zuten guraso eta haurrek dena primeran ate-

ratzeko, zorionak eta segi horretan!

Elgorriagako Itzulia maiatzaren 15ean

Maiatzaren 15ean Elgorriagako itzulia antolatu dute. Herritarrei zuzendutako ekitaldia da eta helburua bertako gazteei edota kanpotik

gurera bizitzera etorri direnei, Elgorriaga inguruko txokoak eta paraje desberdinen izenak ezagutzeko aukera eman eta bidenabar bueltatxo bat ematea da. Udala, Zorroilo elkarte eta Malerreka jantzi dena izan dira antolatzaileak eta itzuliarekin batera, bazkaria eta kami-



ARGAZKIA: M. LARRALDE
Herriko xokoak ezagutzeko itzulia egiten dute.

setak ere egin dira egun honetarako. Hurrengo aldizkarietan izanen dugu Elgorriagako herri bueltari buruzko informazio gehiago.

GIZARTEA → TXITXILLO ELKARTEAREN ESKUTIK

Mendi ateraldia eta talo jatea Aste Santurako plan bikaina

Talo jaten ez ezik, zabaltzen ere aritu ziren neska-mutiko batzuk

Fermin ETXEKOLONEA

Txitxillo Guraso elkarteak antolatuta Mendi ateraldia eta talo jatea egin zuten neska-mutikoek Aste Santuko oporraldian. Zehazki, martxoaren 29an, herriko mendietako txoko politak ezagutu zituzten lehenik eta ondoren, talo jatea izan zuten. Ikusten da gaztetxoaren artean taloen ohitura ez de-

la galduko, Jone, Lusia eta Uxue ederki aritu zirelako talo zabaltzen. Dastatzeko, lehenik prestatu egin behar baita!

Itturri txapeldun

Bardoak ekimeneko txapelaren zati bat herrira etorri da. Izan ere, Ander Fuentes Itturri herritarra kide zuen Ate-kaberts talde leitzarra nagusitu zen Etxarri-Aranatzen jokaturako finalan.

Aizkora apustua

Mieltxo Mindegia ezin izan zuen irabazi Otañoren kontrako



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Neska-mutikoak mendira abiatu baino lehen eta ondotik, taloak zabaltzen eta jaten.

apustua. Galdu arren, apustuak gustura hartzen ditu jendeak, Donztebeko frontoia bezet erakutsi zutenaz. Gainera, berdindua joan zen lehia eta horrek ere ikusgarritasuna ematen dio.

Aste Santuan kanpotar ugari

Ongi joan dira Aste Santuak ere. Kanpotar dexente ibili da eta herriko ostatuak eta landetxeak jendez gainezka egon ziren.

Sagardotegira ateraldia

Hamabost lagun Astigarragako Petritegira joan ziren Aste Santuko larunbatean. «Bijillia bukatzeko modu ona!» aipatu zuten batzuk.

Beñat Intxausti - Leire Olaberria



Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira. EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15 euro Apirilaren 1etik 17ra prezio berezian.

+34 943 085 051 info@domeinuak.eus www.domeinuak.eus



GIZARTEA

MENDIA → NAFARROAKO MENDI FEDERAZIOA ETA BAZTAN-BIDASOA TURISMO ELKARGOEA

Baztan-Bidasoko GR mendi ibilbideen errekupeazioan elkarlanean ariko dira

Apirilaren 23an ibilbideak markatzeko bolondres ikastaro bat egingen da Bertizen

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa eskualdea hainbat GR (ibilbide Luzeak) zeharkatzen dute: GR11 (Pirinioko Ibilbidea, Hegoetik), GR12 (Euskal Herriko Bidea) eta GR10 (Pirinioko Ibilbidea, Iparretik). Sare honetara aurki gehituko dira E. Lotura GR 11-GR 12 edo Bidasoko Trekina (Y formako ibilbidea, Bera/Lesakan eta Lakaingo Lepoa GR11 eta GR12, Uztakortan, lotzen ditunea) eta GRT5 Kulunka/Kulunkaren Bidea (GR11 Elizondan



UTZITAKO ARGAZKIA

Bidasoko Trekinak 137,80 kilometro izanen ditu osotara.

eta Argibelen, eta GR10 Buztanzelain, lotzen dituen).

Lan hauek bukatu eta uda hasieran ibilbide hauek zabalik eduki ahal izateko, Nafarroako Mendi Federazioak ibilbideak markatzeko bolondres ikastaro bat antolatu du Bertizen,

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoaren egoitzan. Ikastaroan, federazioko teknikariek eskeinia, ibilbide homologatuen gaia eta balizatzeo praktikak garatuko dira. Parte hartzen duten bolondresek federazioko aseguruia izanen dute, eta aurretik

Baztan-Bidasoa Turismoan izena eman beharko dute (e: info@baztan-bidasoa.com / fnoa: 948 592 323). Horretarako GREN balizatzeo bolondres eskaera orri bat bete beharko dute. Epea apirilaren 15ean bukatuko da.

E. Lotura GR 11 – GR

12 edo Bidasoko Trekina eta GRT 5 Kulunka/Kulunkaren Bidea balizatzeo bolondresak balizatzeo bolondres kolektiboko partaideak izanen dira, eta mendiko aseguruia izan beharko dute.

Baztan-Bidasoa Turismoa Nafarroako Mendi Federazioarekin elkarlanean arituko da GR ibilbideen promozio eta ezagutzera emateko zereginetan, ibilbide hauek goi mailako baliabide Turistikoa direlako eta turistari eskaintzeko seinalizazio eta mantentze arloetan beharrezko bermea eskaintzen dutelako. Horretarako, Mendi Federazioak argitaratutako eskuorrian eta Baztan-Bidasoa Turismoak argitaratutako duen Baliabideen Gidaliburuan informazioa jasoko da.

BIDASOKO TREKINA ETA KULUNKAREN BIDEA

Errekupeatu eta balizatuko diren tartekak

E1.- E. Lotura GR 11 – GR 12 edo Bidasoko Trekina:

GR 11-GR 12 lotura, Y forma duena, eta Nafarroan GR 11 eta GR 12 lotzen dituen. Y barreneko ibilbidea, 65,33 kmkoa, 3 tartetan banatzen da:

- Mendebaldea: Lesaka (GR 11)-Igantzi-San Juan Xar-Arantza-Azki Lepoa-Bustitz lepoa. 16 km. Desnibela: positiboa 1.200 m, negatiboa 360 m.
- Ekialdea: Lakaingo Lepoa (GR 11)-Etxalar-Azkua-Irubagoeta-Sunbilla-Añezti-Bustitz lepoa. 27,54 km. Desnibela: positiboa 1.829 m., negatiboa 1.290 m.
- Hegoaldea: Bustitz lepoa-

Mitxeltoneko Borda-Aurtitz-Agotaburu-Beintza Labaien-Orraita Lepoa-Artzillar-Uztakorta (GR 12). 21,79 km. Desnibel positiboa 1.080 m, negatiboa 1.170 m.

Kanpoaldeko ibilbidea, 72,50 kmkoa, hiru tartean banatua:

- GR 12 Uztakorta-Bagaundi-ko Lepoa-Belate: 11.31 km. Desnibela: positiboa 367 m, negatiboa 425 m.

- GR 12 Belate-Okolin-Artesiaga-Buztamorro (GR 11ko lotura)-Argibel-Bailegi Lepoa-Elizondo: 30,56 km. Desnibela: positiboa 1.061 m, negatiboa 1.827 m.

- GR 11 Elizondo-Bagordi-Eskisaroi Lepoa-Ursumiats-Lakaingo Lepoa-Xorilepo-Bera (30,75 km), edo Xorilepo-Lesaka (31,51 km). Desnibela: Beran bukatuta: positiboa 1.160 m., negatiboa 1.168 m. Lesakan bukatuta, positiboa 1.080 m, negatiboa 1.138 m.

2.- GRT 5 Kulunka/Kulunkaren Bidea:

T formako Pirinioko GR arteko lotura, Iparraldeko GR10 Izpegin eta Hegoaldeko GR11 Kintoan lotzen dituen. 28,60 km. Ibilbidea 4 tartetan banatzen da:

- Iparraldea, Izpegi-Buztanzelai: 2,9 km eta 210 m desn +.



- IparEkialdea: Izpegi-Sakanako Lepoa-Istauz-Berderiz: 11,4 km eta 500 m desn +.
- Ekialdea: Berderiz - Argibel (GR 11), 4,3 km eta 350 m desn.
- Mendebaldea: Berderiz - Elizondo (GR 11), 10 km eta 200 m desn+ eta 550 m desn-.

UDABERRI - UDAKO

MODA 2016

URTARO ALDAKETA NABARI DADILA!

Udaberrian sartu orduko, eguna luzatu eta eguzkia indarra hartuz doa. Modan ere nabari da urtaro aldaketa, giro onak gure janzkera, osagarri eta orrazkera eraldatzen ditu eta. Oihal marradunak, kolore biziak, naturaltasunaren aldeko apustua, 70 eta 90. hamarkadei keinuak... moda adituek 2016ko udaberri-udarako egin dituzten proposamenetako batzuk dira.

GIZONEZKOAK

Iazko joerak eraberrituta

Erakuslehoak hasi dira udaberri-udako gizonezkoendako jantziekin betetzen. **Txinatar estiloko** galtzak eta **Denim estiloa** dira aurtengo bi izarrak. Lehenbizikoak, lortu nahi den emaitzaren arabera, ator edo kamiseta informal batekin konbinatu litezke. Denima, berriz, total looka osatzeko: galtza, ator eta jaka bakeroa jantzita, material bakarra erabili eta tonu desberdinetan konbinatzea dago modan. Temperatura freskoari aurre egiteko, **larruzko jakak** edo **Bomber estilokoak** aurkituko ditugu edonon. Eta egunik beroenetarako, berriz, galtza motzak ezin dira falta: kolore bizikoak, neutroagoak (urdinak, zuriak, arrosak...), estanpatuak... dagoen aukera zabala ikusita, norberaren gustuen arabera aurkitzea ez da zaila izanen. Estanpatuei dagokienez, ausartenendako loreak eta estanpatu tropikalak gomendatzen dituzte. Laukidun atorrak ere ez ditugu atzean utziko, lauki zabalagoak eta kolore deigarriagoak dituzte orain.



- Ramon Sanjurjo
- Roy Robson
- Fuentecapala

Serapio Múgica, 11
20302 IRUN
943 612 626

www.capelettimercheirun.com



ttipi-ttapako
BERRIAK
TWITTERREN ERE BAI!
 @ttipi_ttapa / @erran_eus



Maite Moda



Kale Nagusia, 4 behean - DONEZTEBE
 T. 948 450 727  Maite Moda

kokette
 elizondo



EMAKUMEZKOAK

Udaberri-udarako joerak

Egunero jantziko genituzkeenak batzuk, burutik pasa ere egiten ez zaizkigunak bertzeak; eragin horixe izaten dute, baina inoiz ez da kalte, denboraldiko joeren berri izatea. Emakumeen modari dagokionez, bortsu dira ezinbertzean aipatu beharrekoak:

1 Marrak han eta hemen, orizentalak, bertikalak, zeharkakoak... marinel itxuratik haratago joanda, kolore eta diseinu berritzaile ugari topatuko dituzue erakusleihatuan.

2 Lotarako jantzien itxura duten arropak moda modan daude. Enkajeak, zetazko soineko eta atorrak...

3 Sorbalda agerian eramatea, beti izan da dotoreziarean adierazlea. Nork ez du gogoan Brigitte Bardotek horren eza-gun egin zuen eskotea? Soinekoetan ez ezik, atorretan ere diseinu hau nabarmenduko da. Lepoaldea eta sorbalda agerian geratzen direnez, belarrirako handi batzuekin osatu liteke looka.

4 Gona eta soinekoen beheko aldeei garrantzia gehiago ematea da asmoa, bolumen desberdinekin, tolesdurekin, parpailekin... jokatzu.

5 Metal kolore, zilarra eta brontzez, tindatuko dituzte galtzak, jakak, topak... itxura futurista lortuz.



Lulu
 Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik
 IRUN · Tel. 943 616 165



38tik 64ra bitarteko neurriak
 Astelehenetik ostiralera:
 10:00-13:00 • 16:30-20:00
 Larunbatak: 10:00-13:00

LARUNBAT
ARRATSALDETAN ITXIA





Beola Etxea

VENTA



Ibardin gaina, 30 BERA • T. 948 630 709 • www.beolaetxea.com



**UDABERRI-
UDAKO
MODA BERRIA
DAGOENeko
ZURE ESKURA!!!**

**OSAGARRI, BITXI,
BOLSA eta
OINETAKOETAN
AUKERA ZABALA**

**GIZON eta
EMAKUMEENTZAKO
ARROPA**

**LURRINDEGIAN
sekulako eskaintzak!**



Paramita...
...

Xti.

SUREKANA

Bench.

smash!

!Solid

BASS3D
Xti

ICHI

TIFFOSI



KAPRITXO

- Opariak
- Bitxiak
- Nesken arropa
- Mutilen arropa

LEITZA · 948 510 748



Deaigual

ASTORE FREEMAN TPORTER



bixkiak

KIROL ETA MODAKO arropa denda

Arrehexa, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110



IPINGI

Santiago 88
ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es

ARROPA eta OSAGARRIAK www.ipingi.es



OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK

Heldu da koloreen eztanda!

Jantzi bat edo bertzea aukeratzeko orduan, diseinuak bezainbertzeko garrantzia izaten du koloreak. Norberak daki inork baino hobeki, zein kolore doakion ongi, baina, ezusteko atseginak ere izaten dira. Horregatik, datozen hilabeteetan joera izanen diren koloreen berri izan eta probatzera ausartu zaitez!




URDINA da ezinbertzean aipatu beharreko kolorea, bere gama zabalean. Urdin argia, zetazko soinekoetan behin eta berriz erabiliko dena, ilehori zein beltzarenei primeran doakie. Urdin ilunak ere garrantzia hartuko du eta itxura indartsua eta dotorea lortu nahi dutenek urdin elektrikoa ere aukeran izanen dute.

KOLORE ZITRIKOAK, energia eta alaitasunez beteak, dira modako bertze koloreak, batez ere laranja. Horia ere modan dago, intentsitatea apalagoan, limoien kolorea gogoraziz.

Berdea izanen da bertze protagonistetako bat eta zilarra, arrosa, brontzea eta marroi gorrixta ere moda modan daude. Edozein azal koloreekin primeran doaz eta jantzi dotore eta informaletan, bietan, ikus ditzakegu.

ZURI-BELTZAK, huts egiten ez duen klasikoak, ere garrantzia izanen du, elkarrekin edota bertzelako koloreekin konbinatuta. Eta udaberri eta udaren sinonimoa kolorea denez, estanpatu koloretsuak ez dira faltako.





ZATOZ VENTA PEIORA MODA EZAGUTZERA

3 POMMES BENZI BELLOSTA MORLANS BIMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIRES DESIGUAL DOCKERS EA7 ARMANI EASTPAK ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM I.CODE IKKS JACKS&JONES KAPORAL KOCCA LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEVIS LITTLE MARCEL LOLLIPOPS MANGO NAPAPIJRI ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PETIT BATEAU PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SOLID SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS VANS VERO MODA VIOLETA WRANGLER

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel.: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

VENTA PEIO
Zure erosketa gurek hoberean
Euskal Herriko bihotzean

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN




www.facebook.com/ttppi.eus

www.kattagorria.com



kattagorria
lentzeria mertzeria



DENBORALDI BERRIA 2016
Beheko plaza, 10 • LESAKA • 948 627 514

IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 • Doneztebe
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALDETAN IREKIA



3pomes | wayofa | tuc tuc
Pimbelina | Kiriki | B-KARO

HAURRAK

Naturaren indarra

Natura izan dute inspirazio-iturri etxeko ttikiendako jantziak diseinatzerako orduan. Itsaso barea gogorazten duten kolore berdexka, urdin eta zuriak zipriztinduko ditu jantzi eta osagarriak. Marinel itxurako oihal marradunak ere nagusi izanen dira, aitzineko denboraldietan modan egon diren marra zuri, urdin, gorri eta beltzez gain, kolore biziagoak ere erabiliz; kolore konbinaketa ikusgarriak, norabide desberdinetan jarritako marrak... ere ez dira faltako. Eguzkiaren berotasuna, berriz, estanpatu loredunetan ageri da eta kolore azidoak ere ez dira faltako: horia, laranja, berdea, melokotoi kolorea... Kolore leuneko ator eta kamisetak, estanpatu alai eta biziekin konbinatzea ere modan dago.



Erosotasuna

Udaberri eta uda, eguraldi onaz gozatzeko tenorea ere bada, oporraldiaz gozatzekoa, karrikan jolasean aritzekoa... eta horregatik, erosotasuna eta freskura eskaintzen duten ehun naturalak aukeratu dituzte diseinatzaileek: kotoia eta lihoa adibidez. Helduendako bezalaxe, haur eta gaztetxoendako ere denima ezinbertzekoa da, alkandora, galtza eta kazadora bakeroren batek ezinbertzean beharko du zuen armairuan. Oinetakoetan berriz, indartsu dator metal kolorea, eta baita dizdira egiten duten apaingarriak ere. Zapatilak berriz, urrutitik ikus daitezela! Kolore biziak aukeratu dituzte aurtengoan ere diseinatzaileek.



ARROPA KONFEKZIOAK

MARI CARMEN



Braulio Iriarte 22 (Antxitonea ondoan)
ELIZONDO - T 948 580 883



ORRAZKERA ETA MAKILLAJEA

Jantziak bezain garrantzitsua

Urtaroaldaketarekin batera, aitzurrak lanean jarri eta ile orrazkera aldatuko dute aunitzek. Ilea oso motz eramatea modan dago, zenbat eta motzago hobe. Emakume zein gizonezkoendako, luzera desberdinak konbinatzea ere proposatzen dute, aldeak burugaina baino zertxobait gehiago moztuz. Ilea luzeago eraman nahi dutenentzat aurrekaldea atzekaldea baino luzeago eramatea aukera ona da, ilea klabikularen parean moztu eta Bob itxura imitatuz. Horretaz gain, kixkur naturalak, sorbaldetaraino iristen diren adatsak, 70. hamarkadako estiloa gogorarazten dutenak... aukera aunitz daude. Txirikordak eta itxura informala duten ile-bilduak ere ezin aipatu gabe utzi.

MAKILLAJEAN, berriz, naturaltasuna da nagusi. Begiei garrantzia gehiago emanen zaie, eyeliner beltzaz gain kolore nabarmenagoak ere erabiliz, berdea eta urdina adibidez. Ezpainak margotzerakoan berriz, muturreko bi joera daue: itxura naturalaren aldekoak eta tonu ilunak aukeratzen dituztenak.



idoia oteiza
ILARRA PARRUJEGIA

Plazaburua, 9 behea | ELIZONDO | T. 948 580 390
info@idoiaoteiza.com | www.idoiaoteiza.com



Serapio Mugika, 15 | IRUN | 943 618 033
www.mirentxu.net

mirentxu

0-16 neurriko umeen arropak
8-16 urteko neska mutikoetan berezituak
Bertan eskuz egindako soinekoak
Bodyak, barruko arropa, leotardoak,
galtzerdiak, seaskak, oinetakoak
Name it · Wsp! kids · IDO · Nike
Xti · Tiffosi · Zippy · Condor
A&J · Juliana · Vulca-Bicha



ZAKU
PERTSONALIZATUAK EGITEN DITUGU
UME-KOTXE, KAPAZU ETA SILLETARAKO



**JAUNARTZE ARROPETAN
BEHAR DUZUN GUZTIA**

GALTZAK 9'95€ tik hasita
KAMISETAK 4'95€ tik hasita
JAKAK 14'95€ tik hasita
ZAPATILAK 14'95€ tik hasita

BEINTZA-LABAIEN



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Goian eskuinean, haurrak goxokiak biltzen. Lerro hauen gainean, haurrak partxisean eta sariak jaso ondotik.

OSPAKIZUNAK → OHITURARI EUTSIZ

Goxoki biltzen eta partxisean aritu dira umeak Aste Santuan

Maria Telletxea suertatu zen txapelkun partxisean

Arantxa ITURRALDE

Aurtengoan ere, herriko ohiturari eutsiz, Ostegun Santuan haur talde polita bildu zen etxe goxokiak biltzeko asmotan. Bi auzotan ibili ziren haurrak, eta ar-

gazkian ikus daitekeen bezala, gustura eta pozik aritu ziren eguraldia lagun zutelarik.

Ostiral santu goizean partxis txapelketa ospatu zen Labaingo Ittur ondo elkarteak antolatuta.

Argazkian, lau finalistak: Maria Telletxea (txapelketa), Xuban Telletxea (azpitxapelketa), Amaia Bertiz (3.) eta Markel Telletxea (4.).



ARGAZKIA: ESTHER ETXEBERRIA

EHUN URTE BETEAK DITUEN BAPTISTA GOÑIRI OROIGARRIA

Beintza Labaingo herriak Bautista Goñiri, iazko urriaren 21ean 100 urte bete zituenari, omenaldi bat eskaini nahi izan dio Aste Santuko egun hauetan. Horregatik, Jon Telletxea alkatea eta Alejandro Saldias zinegotziak, herriaren ordezkari bezala oroigarri bat eskaini diote martxoaren 26an. Argazkian, ezker-eskuin, Alejandro, Juanita Bautistaren alaba eta Jon alkatea ageri dira, Bautista berari lagun eginez. Argazkia Esther Etxeberria bilobak ateratakoa da.



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

MUS TXAPELKETA ELKARTAN

Ostiral Santuko arratsaldean mus txapelketa egin zuten elkarteak. Txapelketa Jazinto eta Javier Echeolanea anaiak izan ziren, eta azpitxapelketa Marisa eta Miguel Telletxea anai arreba.

GIZARTEA → MARTXOAREN 17AN DONEZTEBEN

Elkarteko mus txapelketaren finalak jokatu dituzte

Tomas Torres eta Juan Larre elizondarrek irabazi zieten finalean Eratsungo Miel Baleztena eta Juan Estangari

Fernando ETXEBERRIA

Martxoaren 17an jokatu ziren mus txapelketako finalak Doneztebeko Santamaria ja-tetxean. 32 bikote aurkeztu ziren, 09:30ean hasi eta hamaiketako hartuta, 14:00 arte aritu ziren. Bazkalondoan egin zen sari banaketa: Elizondoko Tomas Torres eta Juan Larre izan ziren irabazleak eta txapela, ardo botila eta gazta eskuratu zituzten. Eratsungo Miel Baleztena eta Juan Estanga izan ziren azpitxapel-dunak, Zigako Bitoriano Mendiburu eta Alberto Azpirozek osatutako bikotea hirugarren eta Arantzako Timoteo Iguzkiagirre eta Santiago Iparragirre laugarren.

Datozen edizioei begira, txapelketako kanporaketetan parte hartzea gehiago kontrolatuko dutela aipatu dute antolatzaileek. Bikote batzuk bi herritako kanporaketetan parte hartzen dute eta horrek abantaila ematen diela

ikusirik aurrerantzean, herri bakar batean soilik parte hartu ahal izanen dute.

Lehenbiziko irteerak eginda, datozenei begira

Martxoaren 29an bildu zen bidaiak eta irteerak antolatzeaz ardura-zen den Zuzendaritzako taldea. Orain artekoen balantzea egin zuten eta parte hartze handia azpimarratu dute. Xabierera egin zuten denboraldiko lehen ateraldian erraterako, 122 kidek parte hartu zuten eta Donostiako txokoa ikusi ondotik, 292 pertsona elkartu ziren Aginagako sagardotegian bazkaltzeko. Apirilaren 7an, berriz, 88 pertsona Yoga egiten aritzekoak ziren Donezteben Txokarro nekazekin gidatuta.

Datozen hilabeteetan ere ez dute asper-tzeko tarterik izanen. Apirilaren 21ean kantu bazkaria antolatu dute Dantxarinean eta 360 kidek izena eman dute dagoeneko. Maiatzaren 5ean 68 erromesek Lurdeserako bidea egingen dute. Maiatzaren 18tik 31ra arte, 33 kide Benidormera joanen dira 12 egunez atsedean hartze-rra. Benidormera joaten direnek Rias Altas-era ere joateko aukera izan dezaten, ekainaren 2an



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Goitik behera, txapeldunak, txapeldun ordeak, hirugarren eta laugarren sailkatuak.

eginen dute irteera. Ego-kiena berez, aste bete beranduago joatea izanen zen baina data horietan medikuen batzar bat egiteko dute A Coruña eta hotelak beteta daude.

Bigarren sei hilekoan antolatuko diren irteeren berri hurrengo boletinean jasoko dute Arkupeakeko bazkideek. Bertzeak bertze, Baltikoko hiriburuak bisitatzeko aukera izanen dute irailaren 7tik 14ra, urriaren 4tik 17ra Benidormera bidaiatzeko eta azaroaren 4tik 13ra Kanariar Uharteetara.

Arkupeak taldeko

mendizaleek ere hilabetero ateraldiak egingen dituzte. Dagoeneko hiru egin dituzte: Beratik Ibardinera, Bertizko Natur Parketik Aizkolegira eta Biriaturtik Berara. Hurrengo irteera Leitza inguruan egiteko asmoa dute eta segidan, Aralar, Saioa, Txindoki, Aizkorri, Gorbea... Ateraldi hauetan 30 pertsona inguruko taldea elkartzen da eta jende gehiagori animatzeko deia ere egin nahi diete, ibilbideak arazorik gabe egiteko modukoak baitira. Gavarnie eta Tourmaletara joateko asmoa ere badute, autobusez

joan eta hiru orduko ibilbide bat egiteko aukerarekin. Nafarroako Pirinioetara ere autobusez joateko aukera izanen da, inguruko hainbat herri ezagutzen.

Lehiaketak

Aurten zenbait lehiaketa antolatu ditu Arkupeak Elkarteak. Literatur lehiaketarako lanak maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar-ko dira eta poesia zein narratibako lanekin parte hartu liteke. Argazki, marrazki eta pintura lehiaketako lanak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatuko da.

LEITZALDEA

IZEN-EMATEA → APIRILAREN 15ERA ARTE EMAN DAITEKE IZENA

‘Musikari txikiak’ tailerra antolatu du Aralar Musika Eskolak



Pertsonaia
Leire RETEGI

Hernaniko XI. Txistulari Gazteen txapelketan saritua

Zazpi urterekin hasi zen txistua ikasten Leitzako Aralar Musika Eskolan eta egun Iruñeko Pablo Sarate kontserbatorioan erdi mailako bigarren ikas-turtea ari da bukatzen. Hernaniko XI. txistulari gazteen txapelketan parte hartu du berriki eta taldekako kategorian lehenbiziko saria lortu du Eduardo Gorosarriren Suite en 4 Tiempos obrarekin. 30 gazte baino gehiagok parte hartu zuten, 9 eta 16 urte artekoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hamabi haurrentzako mugatua dago partehartzea.

2013ko maiatzetik 2015eko abendura arte jaiotako haurrei eta hauen gurasoei zuzendua

TTIPI-TTAPA

Haurren garapenean musika tresna baliotsua izan litekeela uste dutelako, Musikari txikiak tailerra eskainiko du Aralar Musika Eskolak. Maiatzean izanen dira saioak, denera lau eta ostegun nahiz ostiraletan gauzatzeko aukera egonen da. Ikastaroen antolaketa izen ematen dutenen arabera zehaztuko da. Musikaren, jokoa-ren eta esperimentazioaren bidez gorputza

eta ahotsaren jabetza lantzea da tailerraren helburuetako bat, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio afektiboa lantzearekin bat. Marta Zuñiga eta Unai Artola izanen dira irakasleak eta tailerrak

euskaraz eskainiko dituzte.

Apirilaren 15era arte dago izen emateko aukera. nfo@alar.org helbide elektronikora idatzita edo 948504489 edo 672122472 telefonora deituta (goizetan). Tai-

lerrak plaza mugatuak ditu, 12 haur eta izenemate hurrenkeran onartuko dira.

30 euro ordaindu behar dira eta tailerrean erabiliko den materiala prezio horren barruan sartzen da.

ARESO

GIZARTEA → SEI HILABETERAKO

Herri lanetarako bi pertsona kontratatuko ditu Udalak

Lehentasuna dute epe luzeko langabetuek edo bazterketa arriskuan daudenek

TTIPI-TTAPA

Herri lanetan aritzeko bi langile kontratatuko deialdia argitaratu du Aresoko Udalak. Sei hilabeteko iraupena izanen dute kontratuek eta maiatz aldera hasiko

lirateke lanean. Lanpostu hauek lortzeko interesa dutenek INEMeko bulegoetan izen emanda egon beharko dute derrigor. Aurreko urteetan 30 urtez azpiko pertsonak eta 40 urtetik gorakoek izaten zuten lehentasuna baina aurten baldintzak zertxobait aldatu dira. Epe luzean lanik gabeko dauden pertsonak eta gizarte bazterketa sufritzeko arriskua dutenek izanen dute aurten lehentasuna. Gainera, iaz kontratatu zirenak ezingo dira aurten kontratatu.

HAUTAKETA PROZESUA

Doneztebeko bulegoak baldintza horiek betetzen dituztenekin lehenbiziko hautaketa bat egingo du, aresoarrek ere lehentasuna izanen dute. Zerrenda horiek kontuan hartuta, hautaketa frogatxiki bat ere pasa beharko dute hautagaiak. Ezinbestekoa izango da euskaraz jakitea, eta horrez gain, gaitasunak neurtzeko frogak praktikoa ere gaitasunak beharko dute. Xehetasun gehiago nahi duenak udalera jo dezake.

KIROLA → IZEN-EMATEA ZABALIK

XXXVIII. Herri krosa berrikuntzez betea heldu da apirilaren 23an

Ibilbide berria prestatu dute lasterketa herrigunera hurbilduz

JM BARRIOLA

Leitzako Herri Krosa apirilaren 23an ospatuko da eta ibilbide berria izanen du. Lasterketa herrigunera hurbildu eta kros baten ezaugarrietara egokitu nahi izan dute antolatzaileek eta hala, lurrez, harriz eta adokinez osatutako bidea egin beharko dute parte-hartzaileek. Izen-ematea zabalik dago eta www.kirolprobak.com webgunearen bitartez egin liteke apirilaren 21era arte. Aurrerako bazkideek 8 euro eta bazkide ez direnek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Probaren egunean bertan ere izena eman liteke (10 bazkide-ek eta 15 euro bestee).



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Atekaberts taldea nagusitu da Bardoak ekimeneko finalean

Jai giroan amaitu zen Bardoak Nafarroako taldekako ekimenaren hirugarren edizioa. Hiru talde izan ziren oholtza gainean, Iruñeko Obario Maldikoak, Leitzako Atekaberts eta Berako Larungo Antenak. Etxarriko frontoian 270 bertsozaleren aurrean dotore aritu ziren Ander Fuentes "Itturi", Joanes Illarregi, Xabat Illarregi eta Migel Mari Eloseggi "Luze" eta beraiak eskuratu zuten garaipena.

DISTANTZIAK

Benjaminek 800 metroko ibilbidea osatu beharko dute (orain artekoa) eta gaztetxoek ibilbide berriari itzuli bat eman beharko diote (2250m). Kategoria absolutuan zirkuituari bi edo

lau itzuli emateko aukera izanen dute (4.500 m edo 9000m). Benjaminek 16:30ean abiatuko dira irteeratik, gaztetxoak 17:00etan eta helduak 17:30ean. Bukarantzen sari banaketa eta zozketak izanen dira.

IBILBIDEA EZAGUTZEKO AUKERA

Ibilbide berria korrikalariei ezagutzera emateko asmoz, antolatzaileek hitzordua jarri dute apirilaren 11 eta 18an, astelehena, 19:00etan Leitzako plazan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurrerako dantzariak eta Korrontziren saio dotorea

Martxoaren 19an 800 lagun bildu ziren kiroldegian Aurrerako Dantzariak eta Korrontzi musika taldeak elkarlanean osatutako saioa ikusteko. Iaz jarri ziren harremanetan eta azaroaz geroztik ostiral eta larunbatetan 2-4 orduko ensaioak egin dituzte. Emaizta ikusgarria izan zen oso, herriko 34 dantzari dotore aritu ziren oinak Korrontziko enerritmor mugituz.



UTZITAKO ARGAZKIA

IV. Stock azokan jende dezente ibili zen

Martxoaren 19an IV. Stock azoka burutu zen herriko plazan Kxkbeltza Komertzianteen Elkarteak antolatuta. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, jende asko hurbildu zen karrapera eskaintzak ikusi eta erosketak egitera. Komertzianteeek eskerak eman nahi dizkie bertaratutako guztiei.

FLASH

Haurrentzako masaje tailerrak

Apirilaren 7tik maiatzaren 5era, zortzi hilabete bitarteko haurrei eta beren gurasoei zuzendutako tailerrak eskainiko ditu Ederne Lamuedra adituak. Bost saio izanen dira, ostegunetan, 10:30etik 12:30era udaletxeko lehenengo solairuan.

Bilbora joateko autobusa

Apirilaren 17an, eguerdian, *Amnistiaren norabidean presoak eta iheslariak etxera* lelopean manifestazioa izanen da Bilbon eta bertara joateko autobusa antolatu dute. Interesa dutenek Torrean eros ditzakete txartelak.

Iñigo Astizekin literatur solasaldia

Apirilaren 13an *Baita hondakinak ere* poesia liburuaren inguruko solasaldia antolatu du Irakurle Taldeak eta Iñigo Astiz idazlea ere bertan izanen da. Interesa duen edonor bertaratu liteke.

Kale komunikazioa lantzeko panelak jartzen ari dira herrian

JM BARRIOLA

Herrian informazioa eta kartelak jartzeko toki jakin eta zehatz batzuk egon daitezten, panelak jartzea erabaki zuen Udalak eta auzoz auzo jartzen hasi dira. 2015ean egin zen parte hartze prozesu baten baitan landu zuten kale komunikazioa eta orduan ikusi zen panelak jartzeko premia zegoela.

GOIZUETA

GIZARTEA → HIRURTEKO PLANAREN BARRENEAN

Plaza zolaberritzeko proiektua aurrera doa

Udalak 443.766,66 euroko inbertsioa egingo du plaza ingurua berritzeko

TTIPI-TTAPA

Toki Inbertsio Planera plaza berritzeko zolaketa proiektua aurkeztu zuen Udalak. 2014ko maiatzean, proiektua onartua izan zen 263.905,41 euroko diru laguntza emanez eta obrak hasteko urte bete epea zehaztuz. Baina urte horretan udal

korporazioak zailtasunak izan zituen lizitazio prozesua martxan jarri eta obrari hasiera emateko. Ondorioz, 2015eko maiatzean epe luzapena eskatu zen. Hala ere, toki administratibotik ezezkua eman zioten luzapenari eta ondorioz, diru laguntza kendu zen. Udalaren ustez, herrian proiektuak interes handia zuenez, udalak, alegazioa aurkezte erabaki zuen.

2015eko abenduaren 23an alegazioa onartu zuten eta, ondorioz, diru laguntza berreskuratu zen eta sei hilabeteko epea jarri zuten lanak martxan jar-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Migel Angel Ederrak proiektuaren inguruko azalpenak eman zituen Udaletxean.

tzeko. Honek, obrak, ekainaren 23a baino lehenago hastea ekarriko du. Lanek bi hilabete baino gehiago irauen dutela kontuan harturik, abuztuan zolaketa lanetan ariko dira plazan. «Beraz, festetako elkargunea eta eskaintza kulturalaren eszena-toki nagusia izanik, lanak ahalik eta eragozpen gutxien sor ditzan ahaleginduko gara» adierazi dute Udaletxetik.

Begi-bistakoa da zola berritzeko premia dagoela urte guzti hauen igaroak sortutako kalteengatik eta herritarren elkargunea izanik, du-



UTZITAKO ARGAZKIA

Oinezkoek lehentasuna izanen dute zoladura berriekin.

en garrantziagatik. Migel Angel Ederra ingeniari zibila da zolaketa-aren proiektua diseinatu duena eta martxoaren 18an azalpenak eman zituen Udaletxean egin-dako hitzaldian.

Plaza ingurua izan-

go da berrituko dena eta erabiliiko den baldosaren bidez, oinezkoak izango du lehentasuna lanak bukatu ondoren plazak hartuko duen itxuran. Lanen gastua 443.766,66 eurokoa izanen da (BEZ barne).

FLASH

Azienden dirulaguntza kanpainara

Ardi eta behi edo txekorren subentzio kanpainarako beharrezko diren ziurtagiriak udaletxean eskatzeko epea zabalik da apirilaren 15a bitarte.

Ipuin erotikoak larunbatean Umore Onan

Emakumearen Egunaren inguruko azken ekitaldia apirilaren 9an, larunbatean 19:00etan egingen dute Umore Ona elkarteak. *Hotzikara* helduentzako ipuin erotikoak kontatuko ditu Ines Bengoak.

Pilota gozo binakako txapelketa

Apirilaren 16an, 16:30etik aurrera jokatu den pilota gozo binakako txapelketa antolatu du Umore Onak. Bikoteko 8 euro ordaindu beharko da eta bi bikote finalistek saria izanen dute.

Sagardo probaketa Etxeberrian

Apirilaren 29an, 21:30ean sagardo probaketarako afaria antolatu da Astigarragako Etxeberrian. Amaia kafetegian eta Umore Onan eman dai-teke izena hilaren 26ra bitarte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aimar Olaizola hamalaguraren txapel handiaren bila

Eskuz binaka zazpigarren finala izanen du larunbatean Bilbon Aimar Olaizolak, baina oraingoz bi txapel besterik ez ditu lortu, 2008an Mendizabal II.rekin eta 2011n Beginorekin. Oraingoan Urrutikoetxea izanen du lagun eta Irujo eta Rezusta arerio. Binakako hirugarrena ez ezik, profesioaletan lehen mailan hamalaguraren izanen luke Aimarrek irabaziz gero, lau eta erdiaren barrenean zazpi eta buruz buru kantxa osoan lau lortuak baititu gaurgero.

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 15 ETA 16AN

Iruritan Eskuaraz Egunak antolatu dituzte herriko gazteek

Noka taldea, Anje Duhalde, Joxe Replay, Patxuko Nice eta Tirri&Terry DJekin musika izanen da larunbat arratsaldean



UTZITAKO ARGAZKIA

Anje Duhalde ere kantari ariko da Iruritan.

TTIPI-TTAPA

Iruritan Gazteak elkarteak antolatuta Iruritan Eskuaraz ospatuko dute apirilaren 15 eta 16ko asteburuan. Ortzi-razean, Jauregiarte tabernan 20:00etan *Istoria trukea(n)* izanen dute, Julio Soto eta Fernando Anbustegirekin. 21:00 aldera talo jatea eta 22:30ean Beira taldearen emanaldia.

Larunbatean, 11:30ean bisita gidatua egingen dute herrian barna Pello Iriarteren eskutik. 16:30ean ezkil jotzea. 17:00etan Fernando Anbustegi haurrendako ipuin kontalaria izanen da Iruritan Gizarte Bilgunean. 19:30ean Noka taldearen kontzertua. 20:00etan Anje Duhaldek eskainiko du kontzertua. Arratsaldean, Joxe Replay, Patxuko Nice eta Tirri&Terry taldeek eskainiko dute emanaldia.

Haurrendako txotxongilo saioa

Gus Marionetas taldearen *Liburuzaina es-tu eta larri* haurrendako txotxongilo saioa eskainiko dute apirilaren 20an, asteazken arratsaldeko 5etan Elizondoko Udako Kultur Batzordeak eta liburutegiak antolatutako ekitaldira sarrera doan izanen da, lekuak bete arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumezkoen frontenis txapelketa

Baztango emakumezkoen frontenis txapelketan bederatzik parte hartu dute aurten. Iruritan Aranabia pilotalekuan jokaturako finalean Iruritan Nuria Garate eta Edurne Argainek 30-26 irabazi zieten Josune Cordoba eta Maijose Agerreri.

Udal Musika Eskolako ikasleen entzunaldiak

Baztango Udal Musika Eskolako ikasleek udaberriko entzunaldi-

ak eskainiko dituzte apirilaren 18an (astelehena 17:00etan), 19an (asteartea 18:00etan) eta 20an (asteazkena 16:00etan) Arizkunenean.

APIRILAREN 8RA BITARTE EMAN DAITEKE IZENA

Dolua lantzeko talde terapeutikoa osatu nahi da

TTIPI-TTAPA

Dolua lantzeko talde terapeutikoa osatu nahi dute, Udako Gizarte Zerbitzuek antolatuta. Apirilean, maiatzean, ekainean eta irailean, hilabetean bi saio egin gogo dituzte, bakoitza bina ordukoa Elizondoko Arizkunenean, Nahia Psikoterapia Zentruarekin. Zehazki, apirilaren 13

eta 27an, maiatzaren 11 eta 25ean, ekainaren 8 eta 22an eta irailaren 14 eta 28an. Ordutegia, parte hartzaileen disponibilitatearen arabera zehaztuko litzake. Taldeak saio gehiago beharko balitu, denen artean baloratuko lukete. Izen ematea apirilaren 8ra arte egin daiteke (egun hau barne), 948 580006 telefonora deituz.

FLASH

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Amalur ikuskizuna eskainiko du pailazo hirukoteak apirilaren 10ean, igandean 11:30ean Elizondoko pilotalekuan, Baztan ikastolako Guraso Elkarteak antolatua.

Helduendako antzerkia Iruritan

Heroiak antzezlanaren eskainiko dute Ramon Agirre, Kandido Urrang eta Jose Ramon Sorroiz aktore ezagunek apirilaren 10ean, igandean arratsaldeko 7etan Iruritan Damaso Zabala Gizarte Bilgunean. Baztango Udako kultura batzordeak antolatutako ekitaldira sarrera doan izanen da lekuak bete arte.

Baratzeko mamu tailerra Elbeten

Birbira kolektiboko Amaia Zinkunegi eta Ines Gerekaren eskutik baratzeko mamu tailerra egingen dute apirilaren 16an, larunbat goizeko 10:00etatik 13:00etara Elbeteko plazan. Izen ematea Arizkunenean egin behar da, doan.

Txistu eta akordeoi kontzertua

Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak *Bi poliedro* txistu eta akordeoi kontzertua eskainiko dute apirilaren 17an, igandean 19:00etan Arizkunenean.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

GIZARTEA

HEZKUNTZA → MATRIKULAZIO KANPAINA

Aurten ere bigarren hezkuntzako titulua ateratzeko aukera izanen dute helduek Lekarozen

Apirilaren 29a baino lehen eman behar da izena

TTIPI-TTAPA

Zure ikasketak bukatu gabe utzi zenituen? Bada horri aterabidea eman nahian, aurten ere bigarren hezkuntzako titulurik gabe gelditu ziren helduentzako hezkuntza programa paratu dute abian Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalek, zonaldeko institutuekin eta Cederena Garalur Elkartearekin elkarlanean.

Baztan-Bidasoaldean Lekarozko institutua aukeratu dute programa horretarako. Joan den urtean eskaini zen lehenbiziko aldiz zerbi-

tzu hau eta heldu den ikasturteari begira, berriaz eskainiko da DBH titulua eskuratzeko aukera Lekarozko institutuan. Beti ere, guttienerako taldea osazen bada aterako da aitzinera. Zerbitzua dohainik da.

Bere garaian ikasketak utzi eta programa honi esker DBH ikasten hasi diren eskualdeko hiru lagunengana jo du TTIPI-TTAPAK. Guztiak ere pozik daudela aitortu digute eta segitzeko asmoarekin daudela.

IZEN-EMATEA

Izen-ematea zabalik dago eta interesatua egonez gero, Lekarozko institutura deitu behar da (948 581803) apirilaren 29a baino lehen. Astelehenetik ortziraleira egin behar da 08:00etatik 15:00etara, eta astearteetan 18:00 arte.

APIRILAREN 22RA BITARTE EMAN DAITEKE IZENA

Lagunen arteko harremanak haurtzaroan eta nerabezeroan

TTIPI-TTAPA

Lagunen arteko harremanak eta tira-birak haurtzaroan eta nerabezeroan gaiaren inguruko solasaldia eskainiko du Idoia Apaolaza psikopedagogoa eta gizarte hezitzaileak apirilaren 27an, asteazken arratsaldeko 5etatik 7etara Arizkunenean. Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatutako tailer honetan izena emateko 948 580006 telefonora deitu behar da apirilaren 22ra bitarte (egun hau barne).

HELDUENTZAKO HEZKUNTZA PROGRAMAN ARI DIRENAK

Idoia SALABERRIA | OIZ

«Esfortzuak merezi du eta DBH akituta Batxilergoa ikasteko asmoa dut»

Sortzez Irungoa da Idoia, baina Oizen bizi da. Bere garaian, oinarritzko ikasketak egin eta lanean hasi zen: «garai hartan ez zen lanik falta eta ikasketak utzi eta lanean hastea erabaki nuen». Orduko erabakiarekin, ordea, aunitzetan damutu omen da: «pena sentitu izan dut». Hortaz, senarra eta biek berriaz ikasteko aukera izan orduko, bi aldiz pentsatu gabe hasi ziren: «hasieran Iruñeara jo genuen, baina Lekarozen ere DBH ikasteko aukera bazela jakin genuenean segituan apuntatu ginen». Eskolak arratsalde-ilunabarretan izatea ongi datorkio eta «hagitz kontent» dagoela onartu digu. Bigarren urtea du aurtengoa eta urteko bi ikasturte direnez, «dena ongi badoa, DBH aurten akituko dugu». Berak bezala gazteago zirenean ikasketak utzi zituztenei animatzeko deia luzatu die: «gero eta maila haundiagoa eskatzen dute eta esfortzuak merezi du. Gazteago zarenen ez zaude hain zentratua, baina helduaroan, lanean egonda gogorragoa egin arren, kontzientziatuagoa zaude eta badakizu zertan ari zaren. Denbora hobeki aprobetxatzen da». Lekarozkoa akituta, hurrengo urratsa Batxilergoa ikastea izanen da, baina «Lekarozen ezin denez, Iruñean edo Irunen».



Juan Jose RODRIGUEZ | OIZ

«Lanarekin eroso sentitzen gara, baina ez genioke inoiz ikasteari utzi behar»

«Lana eta ikastearen artean aukeratu behar izan nuen eta ekonomikoki moldatzen ginela ikusita, ikasten hastea erabaki nuen». Halaxe azaldu digu Juan Josek. Sortzez kataluniarra da, baina azken urteotan Oizen bizi da familiarekin. Gazteago zenean, lanpostu finkoa lortu zuen eta ikasketak alde batera utzi zituen: «beharbada ez nion ikasteari utzi behar, baina lanpostu finkoarekin eroso sentitu nintzen eta ikasketak utzi nituen». Geroztik, bertzelako ikasketak egin ditu, Donostiako Kontserbatorioan musika ikasketak, erraterako. Joan den urtean, ordea, «inoiz ez dela berandu» pentsatuta, Lekarozen DBH ikasteari ekin zion. «Etengabe ikasten ari beharko genuke, behin utziz gero, berriaz burua aktibatzea aunitz kostatzen baita. Nahiz eta mantsogo ari, hobe da inoiz ez uztea». Juanjok argi du, DBH akituta, Batxilergoa ikasi nahi du. Baina ez hori bakarrik: «dena ongi badoa, biologia ikasketak ere egin nahi ditut».



Joseba APEZTEGIA | AURTITZ

«Hasiera gogorra da, ia hutsetik hastea baita, baina merezi du ahaleginak»

Eskola-graduatuak lortu eta segidan lanean hasi zen Joseba «niretzat lanean hasi eta soldata edukitzea zen orduan lehentasuna». Gerora, ordea, damutu da hartutako erabakiaz «inguruan eboluzionatzen doa guztia. Teknologia berriak, informatika... Atzera ez geratzeko ikasten hastea beharrezkoa zela nabaritu nuen». Gainera, lan merkatuan ere ikasketek geroz eta garrantzia gehiago dute «edozein lantokitan sartzeko erdi mailako ikasketak eskatzen dizkizute orain». 35 urterekin ekin die berriro ikasketei eta hastea «zaila» dela onartu du «banituen 20 urte ikasketak utzirik eta gogorra da, ia hutsetik hastea baita, baina merezi du ahaleginak». Lana eta ikasketak uztartzen ditu orain eta «oso kontent» dago hartutako erabakiaz «interesgarria da oso ikasten ari garena». Ikasten segitzeko grina piztu zaio eta bigarren hezkuntzako titulua aterata, «erdi mailako modulo bat ikasteko asmoa» dauka.

«Inguruan eboluzionatzen doa guztia. Teknologia berriak, informatika... Atzera ez geratzeko ikasten hastea beharrezkoa zela nabaritu nuen».

GIZARTEA → AROZTEGIAKO PROIEKTUA

Herri galdeketa eskatzeko sinadura bilketa hasi da

Horretarako, herriko zentsoaren %10ak sinatu beharko luke

TTIPI-TTAPA

Ados zaude Lekarozko Aroztegia eremuan, 228 etxebizitza, hotela, eta golf zelaia biltzen dituen egitasmo urbanistikoarekin, Bai ala Ez? Horixe izanen litzateke Aroztegia eta gero zer? Plataformak bultzatu nahi duen herri galdeketa galdera zehatza. Martxoaren 30ean Arizkunenean egindako aurkezpenean hainbat herritarrek azaldu dutenez, «Herri galdeketa martxan paratzeko prozedura abiatu dute eta horretarako, Baztango zentsoaren %10ak sinatu beharko luke».

Sinadurak Balleko Etxeko bulegoetan bilduko dira, astean zehar ohiko ordutegian 09:00etatik 14:00 arte, eta 10:00etatik 13:00 arte larunbatetan, kopuru hau lortu arte. Herritar bakoitzak bi sinadura eman beharko ditu, bat Baztango Udalarri egindako eskaera betetzeko eta bertzea Baztango Batzar Nagusiari eskatzeko. Sinaduren bilketekin apirilaren 1ean hasi dira. Sinatzailerik Baztanen errolda-

tutako herritarrek izan behar dute.

Herri Galdeketa prozedura abiatu ari den bidegabekeria salatzen, UGPS/PSISa gelditzeko eta herritarren erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko», Plataformak datorren apirilaren 23an Elizondon arratsaldeko 5etan egindako manifestazioan parte hartzerat ere deitu ditu herritar guztiak.

www.aroztegiaeta-gerozer.eus web orrialdean manifestaziorako atxikimendua ematen ahal da.

ERABAKI POLITIKOAN GIBELERAT EGITEA

Aroztegia...eta gero zer? Plataformak, bere sorreratik, hiru helburu nagusi izan dituela aipatu du aurkezpenean, «proiektu urbanistiko-espekulatzailea gelditzea, gaiari buruz herri eztabaida abiatzea eta erabaki kolektiboak errespetatzea».

Horretaz gain, proiektu honek, Lekaroz, Baztani eta landa eremuari orokorrean ekarriko lizkiokeen kalteak ere nabarmendu ditu behin eta berriz. «Inongo justifikazio sozialik eta Baztango udal planetik kanpo eraiki nahi diren 228 etxebizitzek (342 biztanle dituen he-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat herritarrek sinadura bilketaren eta manifestazioaren berri eman zuten,



UTZITAKO ARGAZKIA

Aroztegiari buruzko herri galdeketa abiatzeko eskaera

Zenbait baztandar Balleko Etxerat joan ziren martxoaren 18an, Batzar Nagusiari zein Baztango Udalarri Aroztegiako proiektuari eta UGPSari buruzko Herri Galdeketa abiatzeko eskaera aurkeztu. Ezkerretik eskuinera: Inazio Plaza Zugarramurdi, Mikel Altzuart Zaldain, Ixidro Herguedas Sukia, Maite Astrain Antxorena, Joseba Gaztelumendi Bikondoa, Oier Usandizaga Larrañaga, Begoña Agerberere Elizetxe, Jose Luis Karrikaburu Karrikaburu. Beraz, Aroztegiari buruzko herri galdeketa martxan paratzeko prozedura abiatu dute. Gogoratu behar da apirilaren 23an manifestazioa ere deitua dagoela Elizondon.

rri batean), Lekaroz zein Baztani lurraldearen desegituraketa nabarmena ekarriko lioketeko Plataformak. «Proiektu hau aitzin ateratzeko, enpresa pribatu bati baztandar guzti-herri nekazarien lur pribatuak bereganatzeko eskubidea eman nahi zaio. Espekulazioan eta bezerokerian oinarritutako eredu delakoz, eta

agortuta dagoen ustelkeriaz kutsatutako eredu izanik, aurka agertu gara».

Erabakiak non, nork eta nola hartzen diren, bulkatzen den garapen eredu honekin ere bat heldu dela uste du Aroztegia eta Gero zer Plataformak. Lekarozko herria, Nafarroako Gobernuko zenbait teknikari, epaitegiak, herri eragile, Baztango Ba-

tzar Nagusia, eta bertze hainbat ahots, proiektu honen aurka agertu direla gogoratu ondoren, «hala ere, UPN eta Geroa Baik elkar eskuetik hartuta, proiektu honen alde egin dute. Argi utzi nahi dugu UGPS/PSIS hau onartzea erabaki politikoa izan dela eta posible zein ezinbertzekoa dela erabaki honetan gibelat egitea».

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 19 ETA 20AN

Estefa Erro eta Mikel Diez gogoratu dituzte Titiriteroen X. Topaketan

Hamasei ikuskizun ezberdin eskaini zituzten

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 19 eta 20ko asteburuan, ospatu da Titiriteroen topaketa Zugarramurdin. Aurtengoa 10. edizioa zenez, esfortzu berezia

egin dute antolatzailerik, eta denetara hamasei espektakulu desberdin eskaini dira. Horretaz gain, Estefa Erro eta Mikel Diezek sortutako *Sorginak* muntaiaren grabaketa ikusteko aukera ere izan da, duela 15 urte egin zen azkeneko emanaldiarena.

Txotxongiloen emanaldiak ikusteko lau gune antolatutak zituzten



UTZITAKO ARGAZKIAK

Jende aunitz ibili zen Titiriteroen Topaketako hamargarren edizioan.

herrian: Sorginen Museoko sabaia eta areto nagusia, Akelarreneak eta Gainerakobentako sotoa. Hain zuzen, Estefa Erro zugarramur-

diarrak eta Bergarako Mikel Diezek beheiti horretan antolatu zuten duela bi hamarkada baino gehiago Nafarroako lehen txotxongilo an-

tzoki egonkorra.

Larunbat arratsean karrikadantza egin zen Estefa eta Mikelen oroimenez, Aker eta Mari erraldoiekin.

URDAZUBI

KIROLA → MAIATZAREN 1EKO PROBA

Kontrabandisten Lasterketarako izen ematea zabalik da

Apirilaren 28ra bitarte egin daiteke

TTIPI-TTAPA

Aurten goiz izanen dira Salvatore bestak eta azkeneko urteetako

ohiturari eutsiz, aitzineko igandean, maiatzaren 1ean, Kontrabandisten Lasterketa egingen da. Lasterketa igande goizeko 10etan hasiko da eta dortsalen banaketa egunean berean, 08:45etik aitzin



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kontrabandisten Lasterketako irteera, duela bi urteko bestetan.

herriko plazan. Izen emateko epea zabalik dago apirilaren 28ra bitarte www.kirolprobak.com webgunean.

Plazatik abiatuta

15,83 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariek, 656 metroko desnibelarekin, tartean Azkar eta Elorga lepoak igoz.

Sariei dagokienez, 250, 150 eta 50 euro izanen dira sailkatzen diren lehenbiziko hirurentzat, gizonezko nahiz emakumezkoentzat.

GIZARTEA → ELKARLANERAKO GOMITA

Herriko hautetsiek aho batez onartu dute herri elkargoa sortzea

200 hautetsik 36 bilkura efgin dituzte etorkizuneko eskumenak aztertzeko

Franck DOLOSOR

Hendaia, Hiriburu eta Saran bezala, Senpereko hautetsiek ere aho batez onartu dute Ipar Euskal Herri mailako herri elkargoa sortzea. Joan den udazkenean aldeko iritzia eman zuten jadanik aho batez eta orain aldeko jarriera baieztatu dute aldeko bozka loteslearekin. Baiona eta Maulek ere aldeko bozka eman dute eta jadanik herritarren %27 biltzen dituzten zonbait herri Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa biltzearen alde agertu dira.

Ipar Euskal Herrian herri elkargo bakarra sortzearen proiektua gero eta indar gehiago hartzen ari da. Senpereko herriko etxeko hautetsiek aho batez onartu zuten ideia eta gehiengo osoa izan zuen ere Hego Lapurdiko hirigu-

nean. Frantziako gobernuak proposatu duen aldaketa instituzionalak bi baldintza behar ditu: herrien erdia alde egotea eta horiek herritarren erdia bederen ordezkatzeara. Bi baldintzak bete ziren udazkeneko kontsultan: herrien %72 alde agertu ziren biztanlegoaren %66 biltzen dutelarik. Emaitza berak errepikatzen badira 2017ko urtarrilaren lehenean hasiko da lanean fiskalitate eta eskumen propioak izan dituen erakundea. Ekonomia, garraioak, ingurugiroa, kultura eta euskara kudeatuko ditu berteak berte.

PIERRE MARIE NOUSBAUM AUZAPEZAK DIOenez, «TRESNA INTERESGARRIA IZANEN DA»

Pierre Marie Nousbaum auzapezaren ustez tresna interesgarria izanen da: «sinbolo baten indarra; errepublika, euskal herritarrak eta beren lurraldea errespetatzen dituen maila ona». Dominique Idiart oposizioaren buruak ere ideia bera du tresna egokitzen jo baitu era-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Herriko kontseiluak ahobatez eman du herri elkargoa sortzearen aldeko boza.

kunde berria. Ahatik dudak agertu zituen ez baitaki zehatz zer gertatuko den hondakinen bilketarekin eta Luberria baraderaren garbitze lanean. Idiartek azpi marturatu zuen 200 hautetsik 36 bilkura egin dituztela Hazparneko go-goeta bileretan etorkizuneko eskumenak banaka banaka aztertze eta finkatzeko. Ezker abertzaleko ordezkari bakarrak deitoratu zu-

en herritarrek ezin izan dituztela zuzenean hautatu elkargo berriaren hautetsiak. Jean François Bederedek begi onez ikusten du Euskal Herriaren muga historikoak errespetatzea lehen aldikoz. Proposamena aho batez onartu eta txalo zaparrada entzun zen herriko etxeko kontseilu gelan. Auzapezak azpimarratu zuen keinu indartsua ematen ari zirela Ipar Eus-

kal Herriaren aldaketa garai garrantzitsuan. Tirabiretan aritzeko partez, elgarrekin lan egitera gomiatu zituen hautetsi guztiak biharko egitura denen artean eraikitzeko. Publikoan zegoen Christine Bessonart auzapez ohiari hitza eman zion Nousbaumek. Iparraldearen ezagupena aspalditik aldarrikatzen duena herrien arteko elkartasunaz mintzatu zen.

erran
Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan
e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien arabera bilaketak egiteko aukerarekin

DESCARGARTE APLIKAZIOA DOAN

Google play | Download on the App Store

- Albisteak
- Agenda
- Komunitatea
- Hiri Xorroxin online
- Eguraldia
- Merkatu etikia
- Urtebetetzeak
- Bideoak
- Galeria

SARA

GIZARTEA → MARTXOAREN 25EAN AHOBATEZ

Euskal Herri Elkargoa sortzearen alde agertu da herriko kontseilua

Joana GERENDIAIN

Herriko kontseiluak ahoz batez Euskal Herri Elkargoaren sortzearen alde bozkatu du martxoaren 25ean. Euskal Herri Elkargo horrek, gaur egun diren hamar herri elkargoak elkargo bakar batean bilduko lituzke. Iparraldeko 158 herriek herri elkargo bakar baten proiektuari buruz duten iritzia maiatz hondarrean jakinen da.

Artearen eguna

Garabia kolektiboak antolaturik, Artearen eguna iraganen da api-

rilaren 16an plazan. Goizeko 9etatik goiti, usaian bezala Sarako merkatua eginen da baina denbora berean herriko eskulangileek ere haien ekoizpenak erakutsiko dituzte, eta lletegiak bere proiektua aurkeztuko. 11:00etan kolektiboak asmatuak sorpresa bat ikusten ahal da eta jarraian zintzurbustitze alaitu bat eginen da musika, bertsu eta mutxikoekin. Ondotik, 13:00ak aldera, ekoizleen bazkaria eginen da, 16 euro/eusko eta erreserbatzeko



ARGAZKIA: GOIKO

Eraberriturik eta indarturik ospatu da Idazleen 33. Biltzarra

Sarako euskal idazleen hogeita hamahirugarren edizioan ohi baino bisitari gehiago bildu zen Bazko Astelehenean. Sarako Biltzarra elkarte jaio berriak antolatu zuen azoka ezaguna lehen aldiz. Gazte gehiago erakarri eta euskarari toki handiagoa eskaintzea izan zuten xede nagusizat eta biak ongi bete ziren.

0687156130 zenbakira deitu behar da. 13:30etik 15:30era lpotx-ek zirko tailerra bat proposatuko du 4 eta 12 urte arteko haurrentzat.

Kantaldia

Apirilaren 21 ean, ostegunarekin, Sarako Erlauntza eta Ustaritzeko Lapurtarrak abesbatza mistoek kantaldi bat emanen dute elizan. Arratseko 9etan hasiko da, sartzea 10 eurotan da, urririk 15 urte baino

guttiagokoentzat, talde prezio bat ere proposatua da: 10 pertsonatik goiti sartzea 5 eurotan da. Informazioa lortu eta erreserbatzeko Erlauntza elkartearekin harremanetan sartu behar da.

Te pastizategia

Joan den martxoaren 4tik "Sare & Thé" deituriko te pastizategi bat ideki da Saran. Giro goxo batean dute eta pastiza ezberdinetaz gozaten ahal da. Egu-

erditan, salbu asteazketan, tokiko eta bio ekoizkinekin egindako jakiak jaten ahal dira. Dutearen inguruko gauza ere badituzte eta dutea nahas mahas erosten ahal da.

Kirol emaitzak

Errubilariek Campeteko ekiparen kontra 108-3 irabazi dute eta eskubaloian seniorrek berdinketa erdietsi dute 19-19 Urruñako ekiparen kontra.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km
URDAZUBI

ORBELA
SENDERSMIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com


JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

Martzutzak
**ZURE OSPAKIZUNETARAKO
 BEHAR DUZUN GUZTIA**
 ♥ Soinekoak
 ♥ Ilerako apaingarriak
 ♥ Poltsak
 ♥ Bisuteria
 ...
 Bidasoa, 12 • BERA
 948 631 425

EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

- Alexia Meno Paccini**, Lesakakoa, martxoaren 17an.
- Ariane Napal Ibarra**, Sunbillakoa, martxoaren 23an.
- Uxuri Esarte Juanotena**, Doneztebekoa, martxoaren 14an.
- Naira Larzabal Mutuberria**, Igantziakoa, martxoaren 17an.
- Maiana Simao**, Sarakoa, martxoaren 8an.
- Izarne Agesta Petrirena**, Sunbillakoa, martxoaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
 Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

- Marta Arrizabalaga Urrizola**, Elizondokoa, martxoaren 17an, 91 urte.
- Micaela Etxekolonea Makuso**, Zubietakoa Pasai Antxon hila, martxoaren 9an, 91 urte.
- Jose Ignacio Etxabarri Bengotxea**, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 22an, 75 urte.
- Francisco Larralde Jaurena**, Urdazubikoa, martxoaren 25ean, 91 urte.
- Jose Maria Azkarraga Etxeberria**, Azpilkuetakoa, martxoaren 27an, 78 urte.
- Maria Magdalena Perurena Narbar-te**, Goizuetakoa, martxoaren 27an, 70 urte.
- Joséphine Angèle Errandonea**, Sarakoa, martxoaren 13an, 87 urte.
- Tomas Jaurena Etxeberria**, Amaiurkkoa, martxoaren 29an, 80 urte.
- Maria Pilar Ozkariz Bruneton**, Etxalarkoa, martxoaren 30ean.



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458



**Jesus
 ANSALAS ARRECHEA**
«ARTXINTXE»
I. URTEMUGA
 Etxalarren hil zen, 2015eko martxoaren 29an
Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.
ZURE FAMILIA

MENDI LASTERKETAK → APIRILAREN 17AN

Dena prest dute Beran XII. Mendi Maratoi Erdirako

Ariznabarreta eta Sola dira aurten ere faborito

TTIPI-TTAPA

Oier Ariznabarretak eta Laura Solak aitzineko bi urteetan lortutako garaipena errepikatzea bilatuko dute Manttalek, Gure Txokoak eta Agerra Mendi Taldeak antolatutako Berako XII.

Mendi Maratoi Erdian, apirilaren 17an. Bizkatarra, Sara Korrika Trail-ean ere bigarren garraile suertatu dena berriki, izanen da faborito nagusia, 525 partaide izanen dituen Berako proban. Proba bortz aldiz irabazi duen Manttale taldeko Didier Zago frantziarrak ez du lasterketan parte hartuko, min hartua dagoelako. Iaz hirugarren izan zen



ARGAZKIA: ARKAITZ SAIZ

Joan den urteko irteeran, Ariznabarreta buruan hasieratik.

Beñat Marmisolle eta Berako Joseba Larralde ere irteeran izanen dira, faboritoen artean. Aipatzekoa da lehen aldiz 40 emakumek baino gehiagok eman dutela izena lasterketan.

Azken urteotan bezala, eskuragarri jarri ziren 525 dortsalak bi ordutan bukatu ziren. Lasterketak, 21,125 kilometrokoa, ez du alda-

ketarik izanen eta punturik interesgarriena Larungo igoeran izanen da (900 metro).

BEZPERAN HERRI KIROLA

Bezperan, larunbat arratsaldeko 6etan hasita, herri kirol jaialdi mistoa antolatu dute. Zehazki, Xabier Ariztegi Santxin eta Estitxu Almandoz harrijasotzaileak ariko dira hiru harri

ezberdinekin; arpanarekin, herriko lau bikote mixto; proba konbinatuan, herriko bi talde mistok parte hartuko dute koxkor biltzen, zaku lasterketan, aizkoran, korrika eta arpanan. Bukatzeko, ikusle guztiei irekia egonen den proba herrikoian, lehen emakume eta gizonarentzat sari sorpresa izanen da.

MENDI LASTERKETAK → MARTXOAREN 27AN

549 korrikalarik bukatu dute Sara Korrika Trail lasterketa

Oier Ariznabarreta eta Oihana Kortazar suertatu dira garaile

TTIPI-TTAPA

Sara Korrika Trail mendiko lasterketaren hamakegarren edizioa burutu zen martxoaren 27an eta 549 korrikala-

rik lortu zuten 22,400 kilometro luze dituen proba gogorra bukatzea. Aitzineko bi urteetan bezala, Durangoko Oier Ariznabarreta izan zen bizkorrena, eta duela bi urte ezarritako marka hobetu zuen gainera (1:51:21). Bi ordu baino guttiagotan proba burutzea lortu zuen korrikalari bakarra izan zen Luis Hernando izan zen bigarren (2:00:20) eta Florian Becker hiruga-



ARGAZKIA: PIERRE EZCURRA

Gizaseme eta emakumezkoen podiuma Saran.

rran (2:02:26). Emakumezkoetan, Oihana Kortazar gipuzkoarra izan zen bizkorrena (2:18:37) eta 16. izan zen sailkapen orokorrean, gizasemeak ere kontuan hartuta. Iaz irabazle izan zen Sarah Dinclaux bigarren sartu zen (2:33:58) eta Amélie Sparfel hirugarren.

Eskualdeko korrikalarien artean, Joseba Larralde beratarrak bosgarren izan zen (2:03:50), Senpereko Spuc taldeko Michel Guilcou hamargarren (2:13:10), Igantziko Biltokiko Mikel Urtxegi hegmeretzigarren (2:20:22), Manttaleko Angeltxo Aranibar beratarrak ho-

geigarren (2:21:12) eta Gure Txokoako Joseba Lasarte hogeita batgarren (2:21:18). Emakumezkoetan, Senpereko Spuc taldeko Carole Duarte laugarren izan zen (2:41:02), eta Claudine Sein eta Anne Denis taldekideak 42. (3:43:11) eta 52. (3:55:57) sailkatu ziren.

PILOTA → APIRILEKO LEHEN ASTEBURUAN

Hamar talde hasiak dira XXXVII. Laxoa txapelketan

Doneztebeko 5, Arraioz eta Iruritako bina eta Oizkoa ari dira txapelaren bila

TTIPI-TTAPA

Apirileko lehen asteburuan abiatu da Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren hogeita hamazazpigarren edizioa. Hamar talde ari dira aurtengoan, 5 Doneztebekoak, 2 Arraiozkoak, 2 Iruritakoak eta

Oizkoa. Iaz bezala, ize-naren ondotik, babesle duten etxearen izena eramanen dute taldeek aurtuen ere. Finala abuztuaren 6an jokatuko da Arraiozko plazan.

Bosna taldeko bi multzotan banatuta ari dira taldeak. A multzoan **Doneztebe-Avia** (Asier Mutuberria, Javier Almandoz, Bittor Mendiburu eta Juan Telletxea), **Arraioz A-Rotugrafik** (Xabier Bengoetxea, Jon Gamio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari Laurnagarai), **Doneztebe-Bar Titi** (Emi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arraiozko plazan jokatuko da txapelketako finala, abuztuaren 6an.

lio Zabala, Andoni San Martin, D. Pio Garcia eta Eloy Garcia), **Doneztebe-Suma** (Unai Sappo, Josu Juanena, Xabier Ibarrola eta Joseba Grazenea) eta **Irurita-Biek Aholkularitza** (Joseba Urtasun, Guillermo Etxenike, Iñaki Etxandi eta Karlos Gokoetxea) ariko dira. B multzoan, **Irurita-Miguelene** (Xabi Barbarena, Gorka Urtasun, Ja-

goba Ramos eta Egoitz Prim), **Doneztebe-The Moment** (Pascual Bertiz, Koldo Legarra, Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa), **Doneztebe-Apezteguia** (Ramontxo Etxebeste, Jon Apeztegia, Aritz Baletzena eta Iban Santesteban), **Arraioz B-Sagardiko edariak** (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Aritz Alunda eta Xabier Maritorea) eta

Oiz-Kokoetxea (Andoni Saldias, Iker Bereau, Ioritz Zelaieta eta Iñaki Mendiola).

Multzo bakoitzeko lau lehenbizikoek final laurdenak jokatuko dituzte ekainaren 25ean eta uztailaren 2 eta 9an; irabazleek finalurrekoak jokatuko dituzte uztailaren 16, 23 eta 30ean eta finala Arraiozko plazan jokatuko dute abuztuaren 6an.

PILOTA → 200 METROKO LASTERKETAN URREZKO DOMINA LORTU DU SUNBILDARRAK

Ane Petrirenak Espainiako txapelketa irabazi du junior mailan

Bere marka ere hamahiru zentesimatan hobetu du (24.46) Pamplona Atletico taldeko korrikalariak

TTIPI-TTAPA

Lesioz betetako denboraldi baten ondotik atletismo pistetara itzu-

li zen Ane Petrirena In-sausti atleta sunbildarra urtarrilaren 9an Donostiako Anoetan. Ez nolanih gainera, Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldian eta partehartze libreko proban 200 metroko lasterketa 24 segundu eta 59 zentesimatan egin baitzuen, bere marka pertsonala.

Orain, ustekabeen, Espainiako junior txapelketa irabazi du Sabadellen martxoaren

20an Grupompleo Pamplona Atletico taldeko korrikalariak, berri ere marka pertsonala eginez (24.46).


19 urte bete berriak dituen Petrirenak (1997ko otsailaren 27an jaioa da) ezustea eman zuen, AD Marathon taldeko Paula Garcia madrildarra baitzen faborito nagusia, Gallur hirian jokatutako Espainiako txapelketa absolutuan 24.41eko marka lortu ondotik. Sabadel-

len 24.69 egin zuen Garcia eta hirugarren izan zen azkenean. Zilarrezko domina FC Barcelona taldeko Ingrid Andresek lortu zuen (24.55).

«Ez nuen espero irabaztea, baina lasterketa ona egin eta lortu dut urrezko domina janztea» adierazi du Petrirenak.

UTZITAKO ARGAZKIA

Ane Petrirena, lasterketa batean abiatu baino lehen kontzentratzen.



HERRI KIROLA → MARTXOAREN 20AN DONEZTEBEN

Otaño nagusitu zaio aizkora apustu onean Mindegiari

Beizamakoak minutu eta erdiko aldea atera zion Zubietakoari, jendez lepo zegoen Ezkurra pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Aizkora apustu ederra eskaini zuten martxoaren 20an Doneztebeko Ezkurra pilotale-

kuan Beizamako Eneko Otaño eta Zubietako Mieltxo Mindegiak. Aizkolari bakoitzak 3.000 euro jokoan, hamabina kanaerdiko eta launa 60 ontzako moztu behar zituzten. Otaño 41 minutu eta 35 segundo behar izan zituen lanak bukatzeko, Mindegia gazteak berriz 43 minutu eta 5 segundo, minutu eta erdi gehiago.

Mindegiak, Miel eta Hilario Mindegia, aita eta osaba izan zituen



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Mindegia eta Otaño apustua akituta. Behetian, Ezkurra frontoia jendez lepo.

erakusle; Otaño, Floren Nazabal eta Arkaitz Jauregi.

Otaño zerbait aitzinetik ibili zen neurketa osoan, baina apustu polita izan zen, Doneztebeko pilotalekura hurbildu ziren 600 bat aizkora zaleren gozamenarako. Otaño bere inguruko zaletu ugari eraman zituen eta giro bikaina izan zen.



NAFARROAKO HERRI KIROL JOKOAK → ERREPASOA

Basaburua txapelkun haur mailako sokatiran

Bertze lau txapelak Etxarri Aranazko Andra Marik lortu zituen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako Finala jokatu zen martxoaren 20an Berriozarren. Nafarroako Kirol eta Gazte-

riaren Institutuarekin batera antolatzen diren Kirol Joko hauetan hiru mailako txapelketak jokatu dira: kimu mailakoak (11-12 urte), haur mailakoak (13-14 urte) eta kadete mailakoak (15-16 urte). Haur eta Kadete mailetan Proba Konbinatu txapelketa eta Sokatira txapelketa jokatu dituzte. Kimu mailan berriz Proba



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango Basaburuak lan ederra egin du aurten ere Nafarroako Herri Kirol Jokoetan.

Konbinatu txapelketa bakarrik. Aipatzekoa da Etxarri Aranazko Andra Mariren nagusitasuna, bortz finaletatik lau irabazi baitzituen. Bertzea, haur mailako sokatirarena, Baztango Basaburuak irabazi zuen.

Hain zuzen, sokatirako txapel hori irabazteko ere, berdinke-

ta hausteko tiraldia egin behar izan zuten baztandarrek Etxarrikoekin, baina azkenean garaile suertatu ziren baztandarrak.

Kadete mailako sokatira txapelketan bigarren postua eskuratu zuen Basaburuak.

Proba konbinatuei dagokienez, kimu mai-

lan laugarren izan zen Igantzi B; haur mailan bigarren Basaburua eta hirugarren Arartziri (Araxes, Igantzi eta Artzanegiren artean atera duten taldea) eta kadete mailan hirugarren Basaburua.

Beraz, txapel bakarra baina domina ugari etorri dira eskualdera.

PILOTA → MARTXOAREN 19AN

Bortzirietako eskuz banakako txapelak banatu dituzte Lesakan

22 urtez beheitikoan, Jon Olaizola lesakarra nagusitu zaio Beñat Mitxelena beratarrari

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako XV.pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten martxoaren 19an Lesakako udal pi-

lotalekuan. Kadete mailakoa lehenago, martxoaren 11n jokatu zen Berran, bi protagonistak ikasbidaira joatekoak baitziren. Final horretan, Igantziko Enaitz Telletxeak 18-12 irabazi zion Berako Mikel Eltzaurdiari.

Lesakan jokatuako finalei dagokienez, hauek izan ziren emaitzak:

Ttikiak B maila: Mattin Perez (Bera), 7 – Ortzadar Iratzoki (Bera), 18.

Ttikiak: Unax Bereau (Lesaka), 9 – Aimar O-



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Txapeldunak, txapeldun ordeak eta kategoria ttikienetako partehartzaileak, sariekin.

txandorena (Lesaka), 18

Umeak: Ugaitz Apeztegia (Baztan), 13 – Josu Etxepeteleku (Lesaka), 18

Kimuak: Oihan Etxeberria (Lesaka), 12 – Jon Pagola (Bera), 18.

Haurrak: Asier Bailarena (Baztan), 18 – Asier Telletxea (Bera), 17

Gazteak: Imanol Ugalde (Oiartzun), 13 – E-

kain Etxeberria (Oiartzun), 18

22 urtez beheiti: Beñat Mitxelena (Bera), 14 – Jon Olaizola (Lesaka), 22.

Final nagusian, partida polita jokatu zuten bi pilotariak. Mitxelena 5-0 aitzinetik jarri zen erritmo fuertearrari eta tantoa bukatzerakoan asmatuz. Olaizolak sa-

kea hartu zuenean, ordean, pilota fuertearrari atera zuen eta min egin zion Mitxelenari. Partida borrokatua izan zen, baina Asperekin astero entrenatzen ari den Olai-zolari irabazteko, aunitz jolastu behar da gaur egun.

Finalen ondotik, txapelak eta oroigarriak banatu zituzten.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Elizondoko Antxitoneako paleta goma txapelketako finalak ere jokatu dituzte

Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketako finalak martxoaren 19an jokatu zituzten. Bigarren mailakoan, Goienetxe eta Unai Apeztegia esku pilotari profesional ohiak 40-26 irabazi zieten Elizalde eta Sansiñenari. Lehen mailako final nagusian, Oskariz eta Ballarenak 40-27 irabazi zieten Plaza eta Argarateri. Finalen eta sari banaketaren ondotik, parte-hartzaile guztiek elkarrekin bazkaldu zuten eta ohi bezala, txanpaina barra-barra ibili omen zen.

apirilak 7 - 21

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kantak



DANTXARINEA | 2016.04.21

Euskal kanten jai
Dantxarinean

Arkupeak Elkarteak antolatu du eta 340 bat lagun espero dituzte. Bazkaria, euskal kantak, dantzaldia... Egun osoko besta izanen dela iragarri dute Arkupeak-etik.

Kirola



BERA | 2016.04.17

XII. aldiz mendi lasterketa
eginen da

Apirilaren 17an egingen da 21,150 kilometroko lasterketa ezaguna. 09:30ean abiatuko da. Horrez gain, aurtien, bezperan, herri kirol saio mistoa prestatu dute.

Zinema



DONEZTEBE | 2016.04.10

'Amama' filmaren bi emanaldi
eskainiko dituzte

Asier Altuna zinema zuzendariaren *Amama* filma ikusteko aukera izanen da Doneztebeko zineman. Bi emanaldi izanen dira: 17:00etan eta 19:00etan.

batean' argazki
lehiaketa

Apirilaren 14ra arte aurkez daitezke lanak.

Baztan-Bidasoko
Bertsopaper lehiaketa

Maiatzaren 20ra arte aurkez daitezke lanak.

Bestetako egitarauaren
azalerako lehiaketa

Maiatzaren 31ra arte aurkez daitezke lanak.

BAZTAN

Baztandarren Biltzarre-
ko kartel lehiaketa

Apirilaren 15era arte aurkez daitezke lanak.

DONEZTEBE

Bestetako kartel
lehiaketa

Apirilaren 27ra arte aurkez daitezke lanak.

Ikuskizunak

BERA

3-9 urte haurrentzat

Apirilaren 8an *Kulunkantauri* Liburutegian, 17:30ean.

'Ene kantak'

Apirilaren 10ean Kultur Etxean, 17:00etan.

Oliver magoa

Apirilaren 17an Kultur Etxean, 17:00etan.

'El viaje de las letras'
emanaldia

Apirilaren 22an Liburutegian, 17:30ean.

ELIZONDO

Pirritx, Porrotx eta
Marimotots

Apirilaren 10ean Baztan frontoian *Ama-lur*, 11:30ean.

Haurrenako
txotxongilo saioa

Apirilaren 20an Liburutegian (17:00).

DONEZTEBE

'Kapulana bat zintzilik'

Apirilaren 20an.

'Kontu eta kantu'

Apirilaren 21ean goizez.

Erakusketak

DONEZTEBE

'Mundukide GKE
laguntzaz'

Apirilaren 18tik 24ra.

Hitzaldiak

BERROETA

Paxakari buruz

Apirilaren 9an
12:00etan.

Saharako bidaiaz

Apirilaren 9an Karlos Garaikoetxearen esku-
tik, 19:00etan.

LEITZA

'Baita hondakinak ere'
liburua hizpide

Apirilaren 13an Iñigo Astiz idazlearekin, Li-
burutegian (18:00).

DONEZTEBE

Haurren sozializazio
baketsuaren inguruan

Apirilaren 14an Askin
Haur Eskolan (17:00).

BERA

Esnearen Liga

Apirilaren 25ean *Nola hasi elikadura osagarriarekin bularra ematen dudan bitartean?* Bera-landetan, 17:00etan.

Tailerrak

LEITZA

Haurrentzako masajeak

Apirilaren 7tik mai-
atzaren 5era 8 hilabete bitartekoen gurasoen-
tzat. Ostegunetan uda-
letxean (10:30-12:30).

SARA

Kosmetika tailerra

Apirilaren 9an Herriko
Etxeko Edantegian,
14:00etan.

BERROETA

Haurrenako tailerrak

Apirilaren 8an arra-
tsaldean.

Xaboi erakustaldia

Apirilaren 9an Elena
Ezkurdia eta Elena
Danborienarekin.

ELBETE

Baratzeko mamu
tailerra, txorimaloen
tailerra haurrenako

Apirilaren 16an plazan
(10:00-13:30). Izen-
ematea Arizkunenean.

Ipuin-kontalariak

LEITZA

Eskolako haurrentzako

Apirilaren 6an Maite
Franco Liburutegian.

GOIZUETA

Ipuin erotikokoak

Apirilaren 9an
helduentzat 19:00etan
Umore Ona Elkartearen.

IRURITA

Haurrenako

Apirilaren 16an Fer-
nando Anbustegirekin,
17:00etan.

Antzerkiak

IRURITA

'Herriak' antzezlanak

Apirilaren 10ean Gi-
zarte Bilgunean (19:00).

Lehiaketak

BERROETA

Argazki lehiaketa

Apirilaren 9an (20:00).

BERA

'Irakurketa instat

PROPOSAMENA

IRURITA

Anje Duhalde eta gehiago
'Irruritan Eskuaraz'-en

'Irruritan Eskuaraz' antolatu dute herriko gazteek eta horren baitan, apirilaren 15ean eta 16an ekitaldi saila izanen dituzte. Ortziralean *Istoria trukea(n)* Julio Soto eta Fernando Anbustegirekin eta Beira taldearen kontzertua, bertzeak bertze. Eta larunbatarekin, Noka Taldea ariko da lehendabizi eta gero Anje Duhalderekin kontzertua izanen da. Ekitaldi gehiago ere prest dituzte.



'Bertsol-haritz'

Apirilaren 21ean arratsaldez.

Kantak

BERROETA

Kantu zaharren afaria

Apirilaren 9an Santxotena eta Pello Zabalzarekin, 21:00etan.

SUNBILLA

Kantu zaharren eguna

Apirilaren 16an Arizti-gain kanpinean.

DANTXARINEA

Euskal kanten jai

Apirilaren 21ean Arkupeak-ek antolatuta.

Bertsoak

ARANTZA

'Berto truk'

Apirilaren 9an Bortzirak eta Algortako bertso eskolen desafioa.

IRURITA

'Istoria trukea(n)'

Apirilaren 15ean Julio Soto eta Fernando Anbustegirekin, 20:00etan Jauregiarten.

Ospakizunak

BERROETA

Asteburu kulturala

Apirilaren 8 eta 9an.

IRURITA

'Irritan eskuaraz'

Apirilaren 15 eta 16an.

SARA

Artearen Eguna

Apirilaren 16an.

Kontzertuak

GAZTELU

Liher taldea akustikoan

Apirilaren 8an Gazteluko ostatuan (22:00).

ELIZONDO

Kontzertuak Gaztetxean

Apirilaren 9an Tutan Come On, Muxu Beltza eta Voltaia taldeak 22:00etatik aitzinera.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Hauts haietatik
Unai Villena

Hauts haietatik
UNAI VILLENA
Elkar, 2016

Bere lagun Anderren bizitza kontatu nahi digu Oierrek: gazte ausart eta bizizalea, lana, ikasketak, sexua, parrandak... dena ondo doakiona, harik eta zurrumbilo batean sartu eta geldialdirik gabeko gainbeheran jausi arte: drogen kontrola galtzea, agerpen psikotikoak, ospitaleratzea, desintoxikazio-zentroa, psikiatrikoa... Adiskidetasun-istorio bat da hau, lagunak lagunari egindako maitasun-keinoa; baita gaixo mentalei ezartzen zaien estigma sozialaren eta psikiatrikoen salaketa hunkigarria ere; eta, horrez gain, 80ko hamarkada hasieran jaiotako belaunaldiaren kronika: promesaz betetako haurtzaro oparoaren eta gaztaro hedonista baten ondotik, maiz, etorkizun argirik gabeko helduaroa topatu duena. Unai Villenaren lehen eleberria dugu *Hauts haietatik*, edertasun-minez eta intentsitatez idatzia, eta hartzailearengan ere antzeko zirrara eta irakur-mina piztu nahi litzukeena.

Musika



PEIREMANS+
BIGARREN SARIA

Bigarren saria
PEIREMANS+
Bonberenea, 2016

Heldu da *Bigarren saria*, Peiremans+ taldearen bigarren diskoa, euskal eszenara haize freskoa ekarri zuen estreinako EP hark hamar urte bete dituenean. Eskarmentu handiko musikariez ari gara: Gorkak (Berri Txarrak) eta Imanolek (Bide Ertzean) melodiarako duten grinari men egin eta kantu borobilak ekarri dituzte, Txiki (Kashbad) baterian eta on Marino Goñi (Balerdi Balerdi) baxuan dituztela. Berriz ere Bonberenea estudioetan grabatu dute, Karlos Osinaga teknikari dutela, *Bigarren sarian* bortz kanta berri aurkituko dituzue. Aise suma daiteke pop arima *Bemidji* edo *Radiomaria* aurrerapen singlearen rock gihartsuaren muinean; guttiren espero duzunean *Orain* edo *Zortziak bat* txistukatzen aurkituko duzu zeure burua, eta hiru minutu eskaseko txute melodikoaren ondotik dator *Zutik iraut* itxiera kantu ederra, hazi eta hazi epikarantz...

Internet



FILMAZPIT

Euskarazko azpitoludun zinemaren ataria
WWW.FILMAZPIT.EU

Filmazpit Zineuskadi elkarteak finantzaturako euskarazko azpitoludun zinema zabaltzeko programa da eta Donostia Zinemaldia eta Euskadiko Filmategiaren laguntzarekin, Donostia Kulturak kudeatzen du. Euskadiko zinemaldietan emandako zenbait film beren interesagatik hautatu, proiektatzeko eskubideak erosi eta euskaraz azpitolatzea aurreikusten du programak, baita zita hauetatik kanpo jaso edo emandako filmak aintzat hartzea. Helburua, material guztia interesa azaltzen duten kultur erakundeen esku kosterik gabe jartzea da, erakundeek film hauek jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpitoluekin proiektzio ez komertzialetan eman ahal izateko. Webgune honek programako informazio osoa eta filmen katalogoa jasotzen du eta, baita proiektuan parte hartzen duten eragileek azken urteotan euskaraz azpitolatutako filmen azpidatziak erabiltzaileen eskura paratu ere.

Bi poliedro, txistua eta akordeoia

Apirilaren 17an Arizkunenean (19:00).

Musika eskolakoak

Apirilaren 18, 19 eta 20an 17:00, 18:00 eta 16:00etan, hurrenez hurren, Arizkunenean.

IRURITA

Beira taldea

Apirilaren 15ean Jau-regiarten, 22:30ean.

Noka taldea

Apirilaren 16an Gizar-te Bilgunean (19:30).

Anje Duhalde

Apirilaren 16an Gizar-te Bilgunean (20:00).

SARA

Erlauntza eta Lapurtarrak abesbatzak

Apirilaren 21ean euskal kantak elizan (21:00).

Zinema

DONEZTEBE

'Amama'

Apirilaren 10ean 17:00etan eta 19:00etan.

'Neskatoak'

Apirilaren 15ean Herriko Ostatuan (19:00).

'Hotel Transilvania'

Apirilaren 17an (16:30).

Mendi irteerak

BAZTAN

Mendigoizaleenn ateraldiak

Apirilaren 10an Hondarribiara, 07:00etan.
Apirilaren 17an Bearztundik 08:00etan.

ETXALAR

Mendi taldearen ateraldiak

Apirilaren 10an Irubelakaskora (08:00).
Apirilaren 17an Larunera (08:00).

BERA

Mendi maratoi erdia

Apirilaren 17an 09:30ean abiatuta.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONoz-MUGAIRI. Pisuua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL

IMMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobilizatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. ☎646 774117.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ETXALAR. 85m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldia etxe-tresnekin, bainugela eta gela tiki bat garbigailuarekin. Trastelekuak eta garajearrekin. ☎678 006425.

BERA. Altzate karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldia, egongela eta bainugela. 90 m²koa. 400 euro hilabetean. ☎649 966986.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593.

GARAJE/LOKALAK

salgai

BERA. Garaje itxia salgai. 17 m², Correoseko eraikinaren lurrazpian. 25.000 euro. ☎626 568984.

GARAJE/LOKALAK

errentan emateko

BERA. Legia karrikan, 51. zenbakian, lokal bat errentan emateko. 50 m²koa. ☎686 990087.

ZERBITZUAK

denetarik

Arreta. Jaiotza edo erlijio irudiak zaharberrietan ditut. ☎647 293044.

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Ingeleseko eta txine-rako klaseak ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle titulatuak eta atzerrian ibiliak. ☎600 309807.

**ZERBITZUAK**

psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA

eskariak

Elizondon bizi den **27 urteko neska euskaldun** batek Elizondo aldean adinekoak zaintzen, zerbitzari bezala, administrari bezala, saltaile edota garbiketan lan eginen luke. ☎649 901395.

ELIZONDO eta INGURUAN gizonezkoa lan bila. Mendingan, baserriko lanetan eta eraikuntza bezalako arloetan esperientzia duena. Edozein lan egin eta ikasteko prest. ☎695 399352.

ELIZONDO eta INGURUAN neska lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientzia duena. Adinekoak interna ala orduka zaintzeko edota garbitze-lanetan aritzeko interesatua. ☎631 039914.

31 urteko **emakumez-**

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

LESAKA. Zerbitzaria behar da. Bidali curriculum helbide honetara: m.evag@terra.com.

ZUGARRAMURDI. Sukalde laguntzailea eta fregatzen aritzeko lagun bat behar da. ☎948 599482.

ZUGARRAMURDI. Egunez aritzeko sukalde laguntzailea behar da. Deitu 10:00etatik 17:00etara. ☎948 599022.

IBARDIN. Beola Etxea Bentan sukalde laguntzailea behar da aste-buru eta jai egunetan lan egiteko. ☎948 630709, beolaetxea@gmail.com.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(martxoaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 38 €

Zerri gizena
0,940 € kiloak.

Zerramak:
0,540 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,16

1.koa 3,93

2.koa 3,75

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,24

1.koa 3,97

2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 140,00

idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 120,00

idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,03/3,13

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,80/6,80

8-10 kilokoak: 5,00/5,40

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎948 599039.

IGANTZI. La Villa jatetxean zerbitzari bat behar da barran aritzeko eta mahaiak zerbitzatzeko. ☎634 592788.

ANIMALIAK
oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko. Ama Pirinioetako mastina eta atzarzain zakurra. ☎699 012012.



ANIMALIAK
salgai

3 urteko **ahari muturgorria** salgai. ☎697 440590.

MOTORRAK
tailerrak

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

VW PASSAT FAMILJARRA
EXTRA GUZTIAK. 2012

CITROEN C3 DIESELA
2009 - 51.000 KM

VW POLO DIESELA
2011 - 98.000 KM


Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

DENETARIK
salgai

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



1,50 metro zabal dituen **ohatzea eta armairua** salgai. ☎617 002047.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak,

1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

DENETARIK
galdu-aurkituak

BERA. Martxoko salgai-hondarren ferian kartera bat agertu zen. ☎685 764400.



↑
hemen agertu nahi duzu?
egin zure erosketa **erran.eus** en

IRAGARKIA
2 aldizkaritan eta interneten
10
EURO

TELEFONO GIDA 2016
INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortziriak | Leitzaldea | Malerreka | Urdazuri



- 5.700 ale
- Praktikoa eta erraza
- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...

Aurten berrikuntza bat zuri eskaintzeko **zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean**



Zure enpresa sartu nahi?

Milaka pertsonen ikusiko dute zure iragarkia

Informa zaitetz

T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



Arantzako AIERT BALEZTENA Goñik urte bat bete du apirilaren 4an. Zorionak Alazne arreba eta familia guztia- ren partetik.



Berako XUANE ALTZUGUREN IRA-TZOKIK urteak bete ditu martxoaren 23an. Zorionak familiaren eta bereziki Gorka, Julene eta Maddalenen partetik.



Berako ANE PACHECOK 17 urte bete ditu apirilaren 2an. Zorionak wapa! Urte bat gehiago...



IRAITZ SARRATEA ARRETXE gure etxeko mutikoak apirilaren 13an bi urte beteko ditu. Zorionak Sunbilla eta Legasako familien partetik. Muxu bat pottoko!



Aunitz urtez! OLAIA PETRIRENA MIGELTORENAK urtea bete du apirilaren 3an. Segi beti bezain alai! Muxu potolo bat atta, ama eta Nagoreren partetik.



Aunitz urtez izeba EKIÑE! Pixko bat berandu baina 18 muxu potolo zure iloba Leiane eta Naikariren partetik.



KATIXA MADARIAGA APEZETXEA lesakarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Zorionak aitatzil! Urdazubiko PABLO OLAIZOLA ESPELOSINEK urteak beteko ditu apirilaren 18an. Muxu pila bat zure biloba Pablo Irazoki Olaizola eta familiaren partetik.



IRAITZEK apirilaren 13an 2 urte beteko ditu. Aunitz urte- gure potxolari eta mila muxu potolo!



Aizoango IRAIKI apirilaren 2an 8 urte bete ditu. Zorionak Ituren- gure potxolari eta aita, ama eta Janireren partetik. Besarkada haundi bat!

↑ hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa erran.eus en

argazki soila 5 EURO

argazki bikoitza 10 EURO



ALDIZKARIAN eta INTERNETEN



erran

Mendialdeko Albisteak

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irrati- elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK



- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberako bilaketak egiteko aukerarekin

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN



- Albisteak
- Agenda
- Komunitatea
- Xorroxin online
- Eguraldia
- Merkatu ttikia
- Urtebetetzeak
- Bideoak
- Galeria

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus



**ZOZ
KETAK**

- Urtxintxa - Ele mele mahai-Jokoa
Alizia Urrutia | SUNBILLA
- Irrisarri land - 2 sarrera
Miguel M^a Iribarren | DONEZTEBE
- Baga Biga - CD bat
Joxe Mari Zabaleta | LEKUNBERRI
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Luis Miguel Lameirinhas | ELIZONDO
- Urdi Kiroldegia - 5 sesioko bonoa
Eñaut Lazkano | BERA
- Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Gurutze Udaeta | ORONOZ-MUGAIRI
- Elkar - Liburu bat
Ana Belen Arrizurieta | LEITZA
- Elkar - Liburu bat
Mikel Iriarte | DONAMARIA

658.
aleko
irabazleak



LIBURU BAT + DVD BAT
LANKU
www.lanku.eus



2 sarrera
SARRERAK
ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



2 PERTSONENTZAKO OTORDUA
DONAMARIAKO HERRIKO OSTATA
T. 948 450 127

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera
Heldu bat eta gazte bat

KAMISETA BAT
ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Euskal Mitologia haurrei kontatua
Bakarne Atxukarro, Izaskun Zubialde, Aitziber Alonso
- Espedizioa.
Mendi ororen pisua
Juanra Madariaga

txalaparta
www.txalaparta.eus

**DES
KON
TUAK
%**

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

LESAKA | %5



Garbi
drogeria - lurindegia

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

elika
Dietetika
eta elikadura

BERA | %5, kontsultan

Ariztela
DEKORAZIO TAILERRA

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan
%10, 50€tik gorako erosketetan

Zaldúa
argazkilariak

DONEZTEBE/ELIZONDO |
%10, produktuetan

IPARLA
kirolak

ELIZONDO | %8, 30€tik gora

HIPERSIMPLY NAFAR MENDI

AUTO & MOTO ZOKKETA

2016 KO APIRILAK 23

LARUNBATA

2

Konpetizioko
Moto ttikia



1

Ford KA



948.452.656 | Nafar Mendi Merkatalogunea | Arraioz, Baztan | Arauak kontsultatu

ONDOREN
KONTZERTUA

AZKENTRENA



ZOKKETA
ARRATSALDEKO
5 ETAN

BILTEGI
KAFETEGIAN



www.AZKENTRENA.EUS